



## 2011ko Gabonak



EGUBERRI ZORIONTSUA OPA DIZUEGU !

ASEGURUAK  
**Ges**

Kalitatezko zerbitzua da  
gure lanaren arrazoia

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...





**HARATEGIA**

**Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu !**



**Hipodromo etorbidea 8 • Tel.: 943 361885**

**Lasarte-Oria**




**Kale Nagusia 41 • Tel.: 943 363912**

**Lasarte-Oria**



**Lasarte-Oriatar guztiei eguberri  
zoriontsuak opa dizkizuegu**

**Hator hator etxera !!**





# AURKIBIDEA

- 4-5** Santo Tomas Feria
- 6-7** Olentzerori Ongi Etorria
- 8-10** Pirritx eta Porrotx,  
25 urte irriak zabaltzen
- 11** Euskarazko produktuen katalogoa
- 12-14** Gorka Iparragirre,  
Maltan aireportuaren diseinatzaile
- 16-17** Lasarte-Oriako argazkilarien irudiak  
egutegietan
- 18-19** Floren Colias,  
33 urte herriko eskoletan irakasle
- 20-25** Lasarte-Oriako kirolariak 2011n,  
Urte osoan ereindako haziaren fruitua
- 26** Iñigo Artolaren altxorrak
- 28-29** Agenda
- 30** Zorion agurrak

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



GFeko Kultura eta  
Euskara Departamendua



**EUSKO JAURLARITZA**  
**KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.  
Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.  
Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.





# Santo Tomas azoka



Patxi Etxeberria eta Amaia Agirre bertsolarien saioa entzun zen Okendo plazan.



Xumela korua ere azokan izan zen eta hainbat doinu eskainizituen. Bere zuzendariak, Txapasek ere bakarka abestu zuen.



Amalur trikiti eta pandero eskolako lagunek eta herriko txistulariek erromeri ederra egin zuten.



Euriari aurre eginez, hainbat izan ziren dantzatzera animatu ziren herritarrek.



Gaztainak, eztia, propoleoa, jogurta... dastatu ahal izan zituzten herritarrek Santo Tomas azokan.



Talogleek ez zuten atsedetik izan arratsalde osoan. Herritarrek ilaran egon behar izan zuten taloa lortzeko.

- **Luxuzko autokarrak.**
- **22, 28 eta 31 plazako mikrobusak.**
- **56 plazako autobusak.**
- **Autobus literadunak.**

Ubilluts auzoa, 55. poligonoa 9-4 • 20140 ANDOAIN  
Tel.: 943 305050 • Faxa: 943 305060  
e-maila: [info@autocaresurpa.com](mailto:info@autocaresurpa.com)  
web orria: [www.autocaresurpa.com](http://www.autocaresurpa.com)

# VRPA

## AUTOBUSAK

Eguberri on !







Nahiz eta tarteka euria egin, ugari izan ziren Okendo plazan egin zen Santo Tomas azokara hurbildu ziren herritarrak.



Martina txerria eta bere lau txerri kumeek bisita ugari izan zituzten.

# Santo Tomas azokak giro ederra sortu zuen Okendon

Euriari aurre eginez, herritar ugari bildu zen plazan taloak eta gaztainak janaz ekitaldi ezberdinak ikustera

**E**guraldiari aurre eginez, asteazken arratsaldean Santo Tomas azoka jarri zen Lasarte-Oriako erdi gunean.

Urtero bezala, Ttakun elkarteak hainbat postu eta ekitaldi antolatu zituen, baina aurten kokaleku berria izan zuen azokak, Okendo plaza.

Nahiz eta tarteka euria egin, herritar ugari hurbildu zen Okendo plazara eta giro ederra sortu zen bertan.

## Talo tailerra

Gauzak honela, etxeko txikiek ez zuten aspertzeko astirik izan.

Aurten ere etxeko taloak egiteko tailerra izan baitzen. Gaztetxo eta haur asko ikusi ahal izan zen eskuak irinez

zikinduta zituztela, taloa jaten edota aurpegia txokolatzek bete zutela.

Honetaz gain, Telleri base-riko lagunak Martina txerria, eta bere kumeak ikusi ahal izan zituzten. 150 kiloko txerria eta lau txerrikumeak haur eta gaztetxoek bisita ugari izan zituzten arratsalde osoan zehar.

## Euskal produktuak

Haurrez gain, helduek ere gozatzeko parada izan zuten. Ilara luzea izan zen taloak eta sagardoa banatzen zen karpian, baita gaztainak erretzen zituzten txokoa ere.

Gainera, aurten euskal produktuak txokoa izan zen. Mahala etxeko jogurtak, eztiak, propoleoa... produktu

natural ugari zegoen bertan dastatzeko.

## Bertsokak eta musika

Iluntzean, Txapasek zuzentzen duen Xumela abesbatzako lagunak hainbat kantu eskaini zituzten.

Jarraian, Amaia Agirre eta Patxi Etxeberria bertsolarien saioa izan zen. Besteak beste, Amaiak baserritarrez jantzita joan behar zutela ohartarazi zion Patxiri.

Santo Tomas azokari amaiera emateko, erromeri polita antolatu zuten. Herriko txistularien doinu eta Dabid Egizabalaren aginduak jarraikiz, muxikoak dantzatu ziren eta Amalur eskolako lagunak abes- tiekin hainbat herritar oinak astintzera animatu zen. •



Etxeko txikiek haiek egindako taloak jan zituzten, askok txokolatzekoak.



**Hipodromo etorbidea 3**  
Lasarte-Oria  
Tel.: 943 366176  
labegoxo@euskalnet.net

**DENA BERTAN EGINA**

**turroiak  
mazapanak  
polboroiak  
erregetako opila  
bonboiak**

...

*Eguberri jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu!*

**Pastelak  
Opilak  
Pastak  
Ogia  
Bonboiak**

...







Olentzerori ongi etorria

# Olentzerori harrera beroa egingo zaio

Lasarte-Oriako herriak Olentzeroren ongi etorria egingo dio larunbat arratsaldean. Aurten berrikuntza ugari izango da. Lehen, Olentzero berriro ere Okendo plazara iritsiko dela. Bigarra, Loidi-Barrengo pilotalekutik Okendora kalejira

egingo dela Olentzerorekin batera eta azkenik, Olentzerorekin batera Xixukoz gain, Mari Domingik ere gure herria bisitatuko duela. Porrotx eta beste hainbat lagun izango dira plazan Olentzero agurtzeko.

**E**guberriak iritsi dira eta herriko haur gehienak abenduaren 25a iristeko irrikitan daude. Izan ere, Euskal Herriko ikazkin famatuena, Olentzerok opariak ekarriko dizkie, urtean zehar zintzoak izan badira behintzat.

Baina igande goiza iritsi bitartean, Olentzerok lan handia du haur guztien esku-titzak biltzen.

Horregatik, bihar arratsaldean gure herria bisitatuko du. Lehenik kalejira egingo du herriko kaleetatik barrena eta honetan herriko haur eta guraso guztiei parte hartzeko gonbita egiten diete antolatzaileek.

Ikazkin bereziari harrera beroa egiteko Ttakun kultur elkarteak herriko erakundeen laguntzarekin jaialdia antolatu du Okendo plazan 17:30tik aurrera.

Badira hiru urte Olentzero ez zela Lasarte-Oriako erdi gunera iristen. Iaz Andatza plazan egin zitzaion harrera eta duela bi urte, Loidi-Barrengo pilotalekuan izan zen.

Aurten, berriro ere, Okendo plazara bueltatuko denez, jaialdi handia antolatu nahi izan du kultur elkarteak.

Behin Olentzero Okendo plazara iritsita, jaialdi bereziari hasiera emango zaio. Gabon kantak, musika, bertsoak, magia... denetarik izango da bertan.

## Mari Domingi eta lagunak

Oholtza gainean, Earra! Bertso eskolako gaztetxoak, Xixuko, Porrotx, Amaraun ludotekako haurrak, Alboka-Txiki abesbatzako kideak, Amalur trikiti eta pandero eskolako kideak, Trikihots...



Aurten hainbat lagun bilduko da Okendo plazan Olentzeroren ongi etorri jaialdian. Porrotx eta Mari Domingi ere bertan izango dira eta ezusteko ugari egingo da.

Ehundaka lagun izango dira Olentzerori bihar arratsaldean harrera egingo diotenak.

Baina antolatzaileek aipatu digutenez, aurten Olentzero ez da bakarrik etorriko, beste pertsonaia berezi bat ere izango da gure artean, Mari Domingi.

## Eskutitzak

Aipatu legez, jaialdiaren amaieran, Olentzerok haurren eskutitzak jasoko ditu eta eskutizun horretan laguntzeko Mari Domingi izango da.

Honela, oraindik eskutitza bidali ez duten haurrek Olentzero berari edo Mari Domingi emateko aukera izango dute eta trukean hauen muxu bat eskuratuko dute, baita Porrotx pailazoarena ere.

Jaialdia amaitzean, Olentzerok eta Mari Domingik etxerako bidea hartuko dute. Baina oraingoan ikazkina ixilean joango da, izan ere, lan handia du gauean, Euskal Herriko etxe guztietan opariak eta ikatza banatu behar ditu eta.

## Gabon doinuak

Hau guztiaz gain, larunbat hainbat izango dira gure kaleetatik edo baserrietatik Eguberrietako giroa zabalduko duten talde eta elkarteak.

Goizean, Landaberri ikastolako ikasle eta gurasoak aterako dira Olentzeroarekin kantuan 11:00etan.

Era berean, Naximenduko lagunen taldea ere erdi gunetik ibiliko da Alejandro Romok egindako misterioarekin. Gainera, taldeak biltzen duen dirua Nikaraguan Ale-

jandro Romo erakundeak dituen proiektuak laguntzeko erabiliko da.

Bestalde, Zabaleta auzoko lagunek auzoan eta inguruko baserrietan gabon kantak abestuko dituzte.

Arratsaldean, berriz, Erketz EDT-ko lagunek baserrietara bisita egingo dute jai giroa ere txoko horietara eramateko asmoz.

Alboka abesbatza Atsotabar zaharren egoitzan hasi eta herriko kaleetatik barrena ibiliko da kantuan ere. •

# MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

\*IBILGAILUAK

MOTOZIKLETAK  
AUTOMOBILAK  
AUTOKARABANAK  
FURGONETAK  
KAMIOIAK...

\*MERKATARITZA

\*BIZITZA ETA  
ERRETIROAK

\*OSASUNA

\*ISTRIPUAK ETA  
GAIXOTASUNAK

\*ERANTZUKIZUN  
ZIBILA

\*ETXEBIZITZA ETA  
KOMUNITATEAK

\*INBERTSIOAK

\*PYMEAK...

Ganbo Kalea 1 LASARTE-ORIA Tel.: 943 363449 & Faxe: 943 372413

Ondo igaro Gabon jaiak !



Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 362275 & Faxe: 943 372413







Duela bi urte kalejira Loidi-Barrengo pilotalekuan amaitu bazen ere, oraingoan bertan hasi eta Okendorako bidea egingo du.

## Kalejira handia antolatu nahi du Ttakun elkarteak herritarrekin

Bihar arratsaldean Olenzero gure herriko kaleetatik barrena ibiliko da eta bere ibilbidea alaitzeko kalejira antolatu da.

Olenzero arratsaldeko 17:00ak aldera iritsiko da gure herrira. Menditik jaitsi eta Loidi-Barrengo pilotalekura hurbilduko da.

Harrera txiki bat egingo zaio bertan eta trikitilari eta batukadaren laguntzaz, Loidi-Barrengo pilotalekutik aterako da kalejiran Olenzero.

Lasarte-Oriako erdi gunetik ibiliko da haur guztiak agurtuz. Kale Nagusitik barrena Hipodromo etorbidera egingo du. Okendo plazan amaituko da kalejira eta bertan ongi etorri jaialdia egingo zaio.

Gauzak honela, Ttakun kultur elkarteak deialdi zabala egiten die herritarrei Olenzerorekin batera bidea egiteko.

### Kriseiluak eta jantziak

Era berean, Amaraun ludoteka-ko arduradunek Olenzeroren ibilbidea argitzeko kriseiluak egiteko gonbidapena egiten die haur eta gurasoei.

Egun bat geratzen da eta ez da buru hausterik izan behar. Ludotekako arduradunek azaldu dutenez, "etxean dauden gauzak erabili daitezke, hala nola, metalezko edo plastikozko potea edo laranja bat".

Metalezko potea ongi garbitu eta potean zuloak egitea besterik ez da. Laranjari dagokionez, Laranja hustu

egin behar da eta laranja azalari zulo txiki batzuek egin.

Horren ostean, kriseiluan kandela txiki bat sartu eta bihar, Olenzerorekin ibilbidea egitea besterik ez da.

Honetaz gain, Gazte Klubeko gazteek gaur arratsaldean 16:00etatik aurrera kalejiran parte hartzeko jantziak eta kriseiluak prestatzeko eguna izango dute. •



Berrerrabilpena landuz, laranja azala edo poto batekin egin daitezke kriseiluak.

**Izan Eguberri zoriontsuak!**

Zumaburu kalea 3  
Lasarte-Oria  
Tel.: 605 706029

ONETAKOEN KONPONKETA

**kima**

ondo igaro  
gabon jaietan !

**masaje-lekua**

**Goyo Martin**  
**Xabier Carbayeda**

**Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197**  
**LASARTE-ORIA**

**FISIOTERAPIA ZENTROA**

**Ibaiondo**

**Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu !**

**Fisioterapia Masajeak**  
**Errehabilitazioa Osteopatia**

**Ola Kalea, 12 - behe. ezk - LASARTE-ORIA**  
**Tel. / Faxes: 943 370 306 - fisioibaiondo@gmail.com**

**ILEAPAINDEGI MIXTOA**

**MARIA LUISA**

**Eguberri on !**

**Pablo Mutiozabal 9 behe**  
**Tel.: 943 370980**

**Eguberri on !**

**INQUIETUD**

Neurriak 36tik... 60ra

**Nagusia 49 • Tel.: 943 370 290 • Lasarte-Oria**

**Eguberri jai zoriontsuak igaro !**

**Etorri gure jaki goxoak probatzera**

**VIÑA del MAR**  
**TABERNA-KAFETEGIA**

**Ola kalea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 362768**





## 25 urte irriak zabaltzen

- Euskadiko Orkestrako musikariekin diskoa grabatuko dute 2012an
- Elkartasun elkarte sortu dute gizarte arloan diharduten taldeekin

Lasarte-Oriako pailazoentzat urte berezia izango da 2012a, Euskal Herriko umeen artean irriak banatzen hasi zirenetik 25 urte beteko dituzte eta. Baina bitartean, lanean segitzen dute eta aurten ere hainbat produktu kaleratu dituzte, "Zazpikoloroa" elkartasuna ardatz duen diska berria, "Ongi etorri Pupu eta Lore" ikuskizuna eta beste zenbait bideo jasotzen dituen DVDA, Bonberenea txarangaren CD-DVDA eta bost liburu. Gainera, Irrien Lagunen elkartearen ondotik, Elkartasun elkarte sortu dute aurten gizarte arloan musu truk lan egiten duten taldeekin.

Jon ALTUNA IZA

**O**holtza gainean 25 urte beteko dituzte 2012an Pirritx eta Porrotx pailazok eta Euskadiko Orkestrako musikariekin diskoa grabatuko dute irailean, elkarrekin zuzeneko kontzertuak eskaintzeko asmoa ere badaukate eta bideo bat grabatuko dute Euskal Herriko umeei orkestra zer den erakusteko. Beraien ibilbidea jasoko duen liburua ere prestatzen ari dira, eta Euskal Herriko musika bandekin zuzeneko emaldiak eskainiko dituzte, bandek musika jo eta pailazok kanta.

Zazpikoloroa disko CD berria kaleratu dute Pirritx,

Porrotx eta Marimototsek. 20 ipuintxo eta beste hainbeste abesti dira, Joxe Mari Agirretxe Porrotxek azaldu digunez, "iaz Pupu eta Lore jaioberriei Osasuna, Natura, Zientzia eta Kulturaren berri eman zieten, Tiritatxo pediatria, Largabista basozain, Mari Kalanbre zientzilaria eta Martin Bertso kulturazaleak eta aurten, elkartasunari helduko diogu, horixe izango da oinarri".

Hain juxtu, duela gutxi jarri dute martxan Elkartasun elkarte: "Euskal Herrian talde txiki pila bat daude gizarte arloan lana egiten dutenak; normalean jendea gaixotasunen edo arazoren bat daukanean gerturatzten da hauengana; guk talde



Lasarte-Oriako pailazok: urtea bete duten Pupu eta Lore, Pirritxen besoetan; ondoan, Mari Motots eta Porrotx.

guzti horien aberastasunarekin Irrien Lagunak elkarte zipriztindu nahi dugu; batetik nolabait elkartasunaren balore hori Klubari eman, eta bestetik kluba bera izan dadila beste elkarte guzti horien bozgorailu. Momentuz 22 elkarterekin jarri gara harremanetan, hasteko web orrian elkarte horiei buruzko informazioa eskainiko dugu, gerora elkarlanean gauzak egiteko".

"Zazpikoloroa" ikuskizunaren pertsonaiak Ane eta Patatxek piratak izango dira, "loroa

da piraten hegaztia, Euskal Herriari ostadarraren zazpi koloreak emango dizkion txori alaia" jarraitu du Porrotxek. Igor Elortza bertsolariak egin du ikuskizunaren gidoia, eta hari hori jarraituz hainbat elkarteri egin diote abestia, esaterako Imanol Urbietari "hain juxtu bera baita, kultur esparruan elkartasuna pertsonifikatua, ehundaka kantu sortu dituen musikariak kantu bat merezi zuela uste dugu". Bestalde, Lapiko abestian, "ikastetxetan janari ekologikoaren erabilera

bultzatzen da, eta elkartasuna adierazi baserritarrei".

Bertsolariak aritu dira letra-gile, tartean Amaia Agirre, eta kolaborazio asko dago, parte hartu duten elkarteetako kideak, eta, besteak beste, Esne Beltzako Xabier Solanok eta Zea Mayseko Aiora Renteriak abestu dute, rantxera bat euskaraz kantatu duen Amparanoiako Amparorekin batera. Motxila 21 Down Sindromea duten musikariek osatutako rock taldekoek ere abesti bat grabatu dute.

### MINHOA TABERNA

Razioak  
Pintxoak

...  
Etorri dastatzera !

Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 370885



- Beroaren isolazioa txapan, aluminioan...
- Sabaiko eta makinen geletako intsonorizazioa
- Airearen kanalizazioa txapan eta climaverrean
- PLADURREZKO tabikeak
- Tabernetako intsonorizazioa

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu,  
gino ederrean !

## AINNORSA

PLADUR ISOVER

Oria etorbidea 8-10, 41 pabiloia  
Tel.: 943 366279 • Faxa: 943 372717  
**LASARTE-ORIA**







Mahaiaren laugarren hanka, Isa Fernandez de Agirre, Katxiporretaren bideoez arduratzen den kameraria, Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin.

Katxiporretak argitaratu dituen beste produktuen berri Marimototsek eman digu irudiak grabatu eta muntatzeaz arduratzen den Isa Fernandez de Agirrek lagunduta: Ume txikiarentzat, 0-4 tartearentzat, kartoizko liburuxkak sortu dituzte, Elkar argitaletxearekin elkarlanean, "Nor gara?" izenburupean "Porrotx", "Pirritx", "Mari Motots", "Pupu eta Lore", zeintzuk diren "oso modu sinplean" azalduz. "Ez genuen beraientzat ezer eta gure ikusleak dira. Lau hitzetan azaltzen

### ***Duela zortzi urte Takolok taldea utzi eta Katxiporreta sortu zutenetik, zazpi DVD eta zortzi CD kaleratu dituzte, urtero bat***

dute nor den bakoitza". Mari Mototsek berea kontatu digu: "bihurria da, txabola batean bizi da, putzutan salto egitea gustatzen zaio,... lau esaldi dira, oso grafikoa da".

Patakon eta Ane piraten "Sirenen Kantua" istorio berria ere kaleratu dute Elkarrekin

elkarlanean. "Aspaldi hasi ginen Milakolore familiaren istorioekin eta orain pirata abenturazaleen ipuin berri bat kaleratu dugu. Beti bezala Toqueroren marrazkiekin" azaldu digu Mari Mototsek.

Bestalde, 2010-2011 denboraldiko ikuskizuna jaso dute

zuzen zuzenean "Ongi etorri Pupu eta Lore" DVDan. Martxoan grabatu zuten ikuskizuna Urnieta Sarobe antzokian.

Gainera, zenbait erreportaje, bideo klip, karaoke eta abestien partituras jaso dituzte DVDan, irudien arduradun, Isa Agirrek azaldu digunez, besteak beste, Mari Kalanbre, Lar-gabista, Martin Bertso eta Tiritatxoren azalpenak, Lasarte-Oriako Antzerki eta Dantza Eskolaren historiari buruz Kukukarekin grabatutakoa, Porrotx-ek Palestinara eginda-

ko bidaiaren kronika txiki bat, pailazoekin harremana izan duten Lasarte-Oriako taldeekin eta Bonberenea txarangarekin Villa Mirentxun grabatutako LipDub-a, animaliei buruzko muntaia, karaokea, partitura, kantak,...

### **Aukera zabala DVDan**

Lehen ikuskizuna VHS bideoan grabatzen bazuten ere katxiporreta sortu zutenetik DVDa kaleratzen dute urtero denboraldi amaieran, aurten zazpigarrena, disko bakoitzeko bat, alegia. Isa Agirreraren ustez DVDak aukera ematen du beste hainbat ikuspegi sartu eta diskoak zabaldu nahi duen mezua borobiltzeko. Mari Mototsek ere iritzi berbera du, "gaian sakontzeko erabiltzen dugu. Zuzenean azaldu ezin duguna erreportajeen bidez osatzen dugu". Antzekoa Porrotxek: "Euskara eta alaitasuna ziren hasierako gure osagaiak, gerora hasi ginen baloreak jorratzen eta horretan ikuskizunak mugak dituen bitartean, DVDan beste modu batetara landu daitezke gaiak, kristoren aukera da. Gainera lehenengo erreportajeetatik saltoa eman da, orain pailazoekin elkarriketak ere grabatzen ditugu".

Duela zortzi urte Takolok taldea utzi eta Katxiporreta sortu zutenetik, zazpi DVD eta zortzi disko kaleratu dituzte, urtero bat, eta Katalanez ateratakoa kontatuz bederatzigarrena da aurtengoa. Aurretik Takolorekin beste hamaika disko kaleratu zituzten.





## PESCANORTE S.A.

**EGUBERRI JAI ZORIONTSUAK**  
**OPA DIZKIZUEGU !**

**Mokadu goxoen**  
**txokoa duzue gurea!**

**LEIZOTZ poligonoa, D partzela**  
**Andoain-Urnieta errepidean**  
**ANDOAIN (Gipuzkoa)**  
**Tel.: 943 304300**  
**Faxa: 943 304218**  
**e-maila: pescanorte@euskalnet.net**

# aldika

produktu bereziak

ahatekinak  
ehizak eta hegaztiak  
bakailao gezatua  
onddoak  
marinatuak  
olagarroa

Eguberri jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu !

**Industrialde 19-20 • Tel.: 943 377089 [aldika@euskalnet.net](mailto:aldika@euskalnet.net)**







# Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

*"Maite Zaitut" "T'Estimo" bihurtu da eta herriz herri ematen ari dira Katalunian Pitx, Potx i Mari Cuetes*

## Bonberenea txarangarekin

Urte askotan izan dute harremana Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek Bonberenea gaztetxe-ko txarangarekin eta aurtan, aspaldiko asmoa gauzatu eta, diskoa argitaratu dute elkarrekin, pailazoaren abestian txaranga bertsoan.

"Oso polita atera da" esan digu Isa Agirrek: "CDa izango zena CD-DVD bihurtu da: bi bideo-klip zahar daude, Gorriti azeria eta "pailazoak Gaztetxean"; beste bi berri egin ditugu, Ainhoa Moiuarekin "Maite Zaitut" abestia gorren hizkuntzan, eta Bonberenearen abestiarekin bestea. Gaztetxe-koek Making Off-a ere egin dute: nondik sortu zen ideia, nola egin duten,..."

## Sei hizkuntzatan

"Maite Zaitut"-en gorrentzako bideoa oso polita da, Zea May-sena baino politagoa" Mari Mototsen iritziz.

Abesti honen arrakasta izugarria da, Sardinian, "T'Estimo Moli" kataluniar bertsioa ezagutu zuten eta sardara itzuli. Jada, bost hizkuntzan dago: gorren zeinu hizkuntzan, Katalunieraz, Sardoz, galegoz eta arabieraz. Beraien hita dela aipatu eta segituen erantzun du Porrotxek, "orain arte".

Euskal Herritik urruti, azken aldiz Etiopian egon ziren apirilean eta 2012 urte olinpikoan Londresa joateko asmoa dute, ez dute oraindik erabaki, baina uztailako olinpiadak baino lehen izango da, "joatekotan maiztaren leko zubian joango gara" esan digu Mari Mototsek.

## Pitx eta Potx lehengusua

Kanpora batez ere Kataluniar joaten dira. Mari Mototsek kontatu digu hango esperientzia: "Maite Zaitut, "T'Estimo moli" bihurtu zen, Lax'n'bustorekin elkarlanean. Katalunian ondo funtzionatu genduela esan ziguten, umeentzako pailazo

gutxi dagoelako, soilik urtebetetze festetakoak; gainera han bizi da Aiora Zulaika, Pirritxen ahizpa, animatu, "Maite Zaitut" ikuskizuna katalunierara itzuli eta han ematen ari dira, herriz herri "T'Estimo" saioa azarotik Pitx, Potx i Mari Cuetes, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "lehengusua". Momentuz erantzun oso ona izan du. Euskaldun asko dago han eta zale asko ditugu".

Porrotx-ek azaldu digunez, Katalunian ezagutarazi nahi dute, "baloreak zabaltzeko eta jasotzeko. Emateko eta hartzeko. Ziur gaude Katalunian haurren gaia lantzen dela eta oso modu interesgarrian gainera. Hasieran gaude, Kataluniatik asko dugu jasotzeko".

Kanpora joaten direnean erabili izan dituzte beste hizkuntza batzuek, "Nikaragua joan ginenean egin genuen gaztelaz, eta Kuban ere bai. Etiopian euskaraz egin genuen, eta itzultzaileak tigrinez azaltzen zuten. Kantak beti euskaraz abesten ditugu hala ere" azaldu digu Mari Mototsek. "Kuban kubatarrez egiten zuten Porro-

txek" zuzendu du Isak. Nikaragua Kintxok ere bertakoa egiten omen zuten.

## Katxiporreta.com

Talde zabala da katxiporreta, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsekin batera, pertsonaia ugari ateratzen dira, bakoitza aktore batek interpretatua. Bestalde, Xabi Zabala da taldeko musikagilea, Isa Fernandez de Agirre arduratzen da irudien grabake-

ta eta bideoetaz eta Julen Toquero marrazkietaz.

Isa Agirre duela zortzi urte hasi zen zuzeneko DVDa grabatzen, baina gero eta pisu handiagoa hartu du. Bere ustez, katxiporreta.com webak eta DVDak, aukera zabala eskaintzen dute "gure mezuak zabaltzeko", erreportai edota bideoak bide.

2009ko urritik da martxan Katxiporreta.com weba eta bi

urtetan 70 bideo zintzilikatu dituzte, denetarikoa: pailazoaren eguneroko gauzak, disko grabaketa edota aurkezpena, bidaia, Pupu eta Lore-ren erditzea izan da ikusiena, urte betean 150.000 lagunek baino gehiagok ikusi dute: atzo eguerdian 166.490 sarrera zeuzkan. Zazpikoloroa berriak 13.000 ditu jada eta asteazkenean jarri zuten "Gabonetako Agurra" k, 24 orduan, mila.



Xan Pedrotan Pirritx, Mari Motots eta Porrotx pailazoek bete egin zuten Sorgin Jaiei gunea.

## 25 urte ondoren jarraitzeko gogoarekin

Haurrentzako balore interresgarriak zabaltzen saiatu dira beti Lasarte-Oriako pailazoak 25 urtetan eta haur-narketa sakon horien adierazle da beti Jose Mari Agirretxe, Porrotx: "25 urte beteko ditugu. Duela 24 urte jaio ginen Lasarte-Orian, eskolan A eredu zegoelako, euskara kalean nekez entzuten zelako, haurrek euskaraz aritzeko aukera oso gutxi zeukatelako, haur eta familiei euskaraz modu alaian jarduteko eskaintza txikiarekin. Gero gure proiektua Euskal Herrira zabaltzeko, eta Euskal Herriko toki askotan sumatzen dugu

Lasarte-Oriako egoera hura ematen dela, Nafarroan esateko. Gure helburua euskaraz bizitzea da" eta hori lortzeko lan egin beharra dagoen bitartean hori ibiliko omen dira.

Porrotx-en iritziz behar beharrezkoa da pailazoaren lana eta Katxiporretak duen produktio zabala. "Guk uste dugu ahalik eta produktio zabalean, izan behar dela euskaraz, haurrentzat, gazteentzat, helduentzat, euskarri guztietan. Gure unibertsoak presente egon behar du eta denen eskura. Ezinbestekoa da guretzat, daukagun ereduak erabat kanpokoak dira eta".

Egoera irauli behar omen da baina beti ere kontutan izanrik "modu arrazional batean kontsumitzen ikasi behar dugula, gugandik hasita" eta hori garrantzitsua omen da hezkuntza. "Berdina gertatzen da elikadurarekin; bertan ekoizten dena gure baseritarrek jasotzeko, denen eskura jartzea lortu behar dugu, denok aukera izatea bertako janariak kontsumitzeko eta ekologikoak badira hobe. Beste kontu bat da modu arrazional eta orekatuan jatea".

Gozoz daude pailazoak, segiteko indarrez, baina arazo bat dute Porrotxen ustez, "gai pila bat daukagu lantzeko:

eguneroko goizeko 6:30etan jaitzitzen gara, Berria eta Txintxarri irakurri, herriko saltsatan aritu, eta denbora falta dugu gai guzti horiei heltzeko. Baina, gaiak ikusten ditugun bitartean eta lantzeko gogoa daukagun bitartean, bizirik sentitzen garen bitartean, jarraituko dugu horretan".

Porrotxen ustez, aberasgarria da orain arte egindako dena: "atzera begiratzean ipuingintzan, diskagintzan edo bideoagintzan egindako lanak begiratu eta ez dugu bat bera ere sobera ikusten. Uste dugu horietako bakoitzak aportatzen duela zerbait berria".

**Burgor Tools, S.L.**  
Eguberri on!  
San Marcial plaza 1, behea • Tel.: 943 364070  
Faxa: 943 363333 • burgor@burgor.com

**Altuna**  
DEKORAZIOA  
Tarkett, Suediako parket flotantea

**Valentine**  
MARKA HORIEN BANATZAILE OFIZIALA  
Erakusketa  
Kale Nagusia 4 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 362157  
Faxa: 943 366157

**Eguberri on!**  
Biltegia  
Errekalde pol. 33 • DONOSTIA (Lehenengo Bianchi)  
Tel.: 943 364403

**LAGUNAK**  
Eguberri on!  
Etxebizitzetako eta komertzioetako...  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
Geltoki kalea 6, behea  
Tel.: 943 371077  
LASARTE-ORIA

**LIZARRI OPTIKA**  
Eguberri on!  
Hipodromo etorbidea 8 (Anbulatoriaren aurrean)  
Tel.: 943 366482  
LASARTE-ORIA

**ABREU**  
Ondo igaro gabon jaietan!  
Geltoki 2 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 365846





# Euskal Produktuen Katalogoa

## Oparitu euskara gabonetan

Gabonekin batera opariak egiteko tartea iristen da. Egun eskura izaten dugun produktu aukera zabalaren aurrean zer erosi aukeratzea ere lan zaila izaten da askotan. Guzti hau aldatu eta erraztasunak emateko, parada ederra eskaintzen du [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) web orrialdeak. Bertan euskarazko produktuen katalogoa zabala jasotzen da guztia adinka sailkatuta. Euskarazko musika, filmak, komikiak, jostailu eta jolasak aurki daitezke besteak beste. Etxeko guztientzat opari aproposak topatzeko webgune lagungarria.

**J**ostailuak, liburuak, diskoak zein da opari egokiena? Euskarazko produktuen aukera geroz eta zabalagoa da eta horiek guztiak jasotzen ditu [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) web guneak.

Bertan musika, DVD-Filmeak, informatika, aldizkariak, komikiak, liburuak, jostailu eta jokoak eta gurasoentzako materiala aurki daitezke. Produktu guztiak zein adinentzat egokiak diren zehazten da gainera eta honen inguruko bestelako informazioa ere eskaintzen da erosketa errazagoa izan dadin.

### Ibilbidea

Duela 14 urte, Nafarroako udal gutxi batzuek eman zioten hasiera Euskarazko produktuen Katalogoaren ekimenari. Urte guzti hauean, asko izan dira honetan parte hartu nahi izan dutenak

eta egun, 135 toki-entitate, 200 udaletik gora osatzen dute.

Honela, katalogoa bultzatzen duten udalerriek bat egin eta Euskal Herrian XIV. edizioa argitaratu dute aurten.

### Eskaintza zabala

Aipatu bezala bertan aurki daitezke filmeak, jostailuak eta jokoak, musika, komikiak, aldizkariak, liburuak, gurasoentzako materiala, informatika...

"Euskarazko produktuak erdararen itsasoan nabarmendu behar dira, eta egun bada goen hori erdarazko produktuen itzaletik argitara ekarri," adierazten dute katalogoaren arduradunek web orrialdean.

Paperezko katalogoaz gain, argitaletxeek eskaintzen dituzten produktu guztien erreferentziak [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) web gunean aurki daitezke. Bertan,



produktu edo adinaren arabera banaturik aurki daitezke eta produktuen ezaugarri gehiago ezagutu. Azken batean, ekimenaren arduradunek katalogo hau gurasoentzako lagungarri eta erraza gertatzea dute helburu nagusi.

### Nobedadeak

Haur eta gazteentzako euskarazko produktuen informazioa eta nobedadeak paperezko edizioan zein [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) web orrialdean egune-

ratuak agertzen dira eta aurten nobedadeak direnak bereziki markatuta daude. Gainera urtean zehar kaleratzen diren produktuen berri e-mailean jasotzeko aukera ere eskaintzen da.

Aurtengo produktu berriak dira esaterako Pirritx, Porrotx eta Marimototsen "Zazpikolora" diska, "Ice age 3 Dinosaurioen egunsentia" DVD-Filma, "Bob esponja izan zoriontsu!" ipuina 5 urte arteko haurren atalean, bost eta bederatzi urte

bitartekoentzat esaterako, berriak dira Bat Pat bildumako "Alkimistaren sekretua" edota "Kirats doktorearen mamua". Hamar urtetik gorakoentzat adibidez, "Barkatu aita" edota "Gizajo baten egunkaria" izenburuak aurki daitezke. Jostailu eta jokoan atalean berriz, badi-ra besteak beste, Ikastolen Elkarteak kaleratutako "Lehenengo ordenagailua" eta "Animalien alfabetoa".

Aipatutako izenburu hauek katalogoan aurki daitezkeen nobedadeen artean bakan batzuk dira izan ere, hainbeste produktuen artean erraza da adin egokiarentzat oparia topatzeaz gain, haur eta gurasoen gustukoak diren gaiak aurkitzea. Maitasunezko liburuak, misteriozkoak, fantasiakoak...

### Online jokoak

Internet-en umeak jolasean airtzeko joko anitz daude, eta euskarazkoak ere badaude. Guzti honen informazioa eta dagokion web orrialdea [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) helbidean zehazturik eta zerrendatuta aurkitzen da.

Guztia web guneak duen iruzkin atalarekin osatzen da. Bertan gurasoek aurki daitezkeen produktuen inguruko iritzia utz dezakete erabiltzaileentzat beste tresna lagungarri gisa. Bizi euskaraz, jolastu euskaraz! •

## SUGATE SUGATE SUGATE

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma-armairuak
- Marka guztietako etretresna elektrikoak

*Eguberrri zoriontsua opa dizuegu!*

**Pinore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361 471**  
**Lasarte-Oria**  
**www.stgate.net**

## ALBA

### ARROPA DENDA

*Eguberrri on!*

**KOOKAI**  
**NAFNAP**  
**VERSE**

**Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 574450**

# DAKARA

## JATETXEA

Espezialitatea hostopiletan  
 Errazioak  
 Entsaladak  
 Ogitaratekoak

*Eta orain... eskatu eta eramango dizugu!*

*Eguberrri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!*

**Eguneko menua**  
**asteartetik ostiralera**

Ostegunetan nazioarteko afariak

**Kale Nagusia 8 behea • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 575859**





# 'Gauza askoren lehen aldia izan da'

- Maltako aireportuan diseinu lanetan aritu da Gorka Iparragirre diseinugile lasarteoriatarra
- Mediterranioko irla txikiko Carlos eta Estefania enpresan egin zituen praktikak uda aurretik
- Urtebeterako kontratatu dute eta irailetik beste lau hilabete egin ditu ondoren bertan lanean

Gasteizen arkitektura eta diseinua ikasi ondoren, Maltara abiatu zen Gorka Iparragirre karrerako praktikak Carlos eta Estefania arkitektura estudioan burutzera. Maltako V.V.I.P. (very, very important person) aireportuaren diseinuan aritu zen hiru hilabetez. Bidaia berarentzat aberasgarri izan da pertsonalki, praktikak egiteko aukera izan eta bizitza profesionalen pausu bat emateaz gain. Lehenengoz hartu zuen hegazkin bat eta lehenengoz etxetik urrundu. Gero praktikak luzatu eta irailetik abendura beste lau hilabete eman ditu lanean Maltan. Esperientzia bikaina izan dela aitortu digu Iparragirrek.

## Itxaso MORENO

**G**orka Iparragirre 23 urteko lasarteoriatarra, Gasteizen ikasi ondoren Maltara abiatu zen arkitektura eta diseinu praktikak egiteko asmoz. Bertan proiektu interesgarri batekin aurkitu zen eta bere ibilbide profesionala hasteko ere aukera polita izan du. Urtebeterako kontratatu dute, bertan izan da abendura bitartean eta berriro itzuliko da.

## Zer ikasi zenuen?

Arkitektura eta diseinua ikasi dut Gasteizen. Aurten amaitu dut karrera, hobeto esanda diplomatura. Hiru urteko karrera da eta laugarren urte bat du proiektu finala egiteko.

## Proiektu hori egitera joan al zinen atzerrira?

Ez, proiektua hemen egin eta gero ateratu nuen nota finalagatik Erasmus-en aukera eskaini zidaten. Bederatzi beka eman zituzten bederatzirekin pertsonentzat, eta ni horien artean nintzen.

Maltara joan naiz diseinu munduko enpresa batean hiru hilabetez lan egitera.

## Zein proiektu garatu dituzu han?

Ni Carlos eta Estefania estudioan egon naiz. Bertan Carlos arkitektoa, bere emaztea eta nirekin beste 4 langile zeuden. Gero etxetik bertatik lan egiten zuten beste bi langile zeuden.

Diseinu munduan erraz egin daiteke lan etxetik hainbat proiektuetan, adibidez 3Da muntatzen eta gero informazio guztia bidaliz.

## Zu, konkretuki, zer lanetan ibili zara?

Proiektu batean askok hartzen dugu parte. Ni atal batetat arduratzen nintzen, baina atal horretan egindakoa beste bati pasatzen nion berak bere parte bete zezan. Horrela pixkanaka proiektuari forma emanaz.

## Proiektu horietako bat Maltako aireportuaren barruko diseinua izan da, ezta?

Ni Maltara iritsi nintzenean aireportuko barne antolaketa muntatzen ari ziren eta taldearekin lan egiten hasteko esan zidaten.

Banaketa finkatzen hasi ginen, eraikina jada eginda



Maltako aireportuaren antolaketa eta dekorazioaren parte hartu du Gorka Iparragirrek.

## Proiektu txikiak nahiago ditut, bezeroarekin harremana estuagoa delako eta bere ilusioa zure egiten duzulako

zegoelako. Ez da aireportu normala, ministro eta lehen-dakarienezako aireportua da, V.V.I.P. (very very important person), beraz nik ezingo dut emaitza ikusi.

## Aireportu pribatua al da mol-datu duzuen?

Izenaz aireportu deitzen genion, baina ez da edozein herritararentzat, baizik eta Maltara datozten pertsona garrantzitsuenak hartzeko da.

Bertan elkarriketak egiteko, mitinak emateko...

Ni heldu nintzenean, antolamendua garatzen ari ziren, eta horretan hartu nuen parte. Gero dekorazioa eta altzariak erabakitzeke ardura pasa zidaten niri. Dena den, marka eta estiloa erabakita zegoen aurretik.

Carlos eta Estefaniak beren enpresan eskaintzen duten estiloa berbera erabili dut. Eurak nola lan egiten duten

erakutsi zidaten lehenengo eta hori kontutan izanik, zein marka eta zer jarri erabaki nuen nik gero.

## Proiektua nola iritsi zen zuen enpresara?

Malta ez da oso handia. Diseinu munduan bi enpresa garrantzitsu daude, nik ezagutu dudana hau eta beste bat. Biei eman zieten aukera proiektua prestatzeko. Ni heldu nintzenean lehenengo aurkezpenarekin zeuden eta guri eman ziguten aukera.

Oso pozik nago. Han gauzatutako lana hemen egitea oso zaila da, diseinu aldetik aireportu bat muntatzeko aukera hori, hemen oso zaila izango nuke.

**Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!**

**M ZUBI**

LASARTE-ORIA

Geltoki kalea 21 • Tel.: 943 362467 Faxes: 943 372794 • Lasarte-Oria  
E-maila: muebleszubi@hotmail.com







Gorka Iparragirren enpresak diseinaturako Maltako VIP aireportuko planoak.

## Praktikak Maltaan egitea oso aberatsa izan da. Profesionalki irabazi dudana gain pertsonalki ere asko ikasi dut.

Hemen gainera aireportuak eta horrelako eraikinak ez zaizkio edozein enpresari ematen, izena eduki behar duzu horrelako lan bat esku-ratzeko.

### Nola sentitu zara horrelako proiektu batean parte hartuz?

Oso oso txikia. Gainera hone-lako proiektu izugarri batean parte hartzeaz gain, hemen-dik ateratzen nintzen lehenengo aldia zen. Lehenengo aldiz hartu nuen hegazkina ere. Beraz gauza askoren lehenengo aldia.

### Nolako esperientzia izan da zuretzat Maltakoa?

Oso ona, oso aberatsa. Hiru hilabete intentsu izan dira. Gauzak asko aldatzen dira, ingelesaren kontuan adibidez.

Nik uste nuen ez zela behar-beharrezkoa, baina hara iritsi eta konturatzen zara ingelesik gabe ezin duzula lanik egin, ezin zarela komunikatu, ezin duzula ezer eskatu...

Esperientzia garrantzitsua izan da, etxetik kanpo hiruhilabete pasa ditut, eta profesionalki irabazi dudana gain pertsonalki ere asko ikasi dut.

### Zergatik Malta? Zuk aukeratu zenuen?

Eusko Jaurlaritzak eta Erasmus-ek zenbait beka ematen dituzte, diru laguntza bat baina biak elkarrekin. Beka hori eskolak lotzen du horrela aukerarik ez galtzeko. Guri emango baligute hautatzeko aukera; lekua, etxea, enpresa... zaila ikusten dut guztia maneiatu ahal izatea. Ikasten zaude, proiektuarekin, zaila da.

Beraz, eskolak bitartekari papera hartzen du. Zuk nahi duzuna esaten diozu eta berak dituen kontatuekin lotzen dizkizu praktikak, Maltaan adibidez.



Gorka Iparragirrek iazko ikasturtean paraktikak egin zituen Maltako Carlos eta Estefania arkitektoekin, eta aurtien lanera bueltatu da bertara.

## Gauza askoren lehenengo aldia izan da Maltako esperientzia hau eta hasieran oso txikia sentitzen nintzen

Askotan esaten da praktikak ez dutela ezertarako balio, zure kasuan guztiz kontrakoa izan da, ezta?

Bai, arrazoi duzu. Niretzako hiruhilabete motz geratu dira. Asko ikasten duzu baina azkarregi pasatzen da denbora. Lehenengo hilabete kokapen hilabetea da, dinamika batera ohitzekoa eta egin beharrekoetan bustitzeko. Eta gero beste bi geratzen zaizkizu garatzeko, motza geratzen da. Baina, beno, ni praktike-

tatik bueltatu naiz eskola-  
lan ikasitakoa nire bizitza profesio-  
lerakoa gustatzen zaidala jakinda.

Karrera bukatzen duzunean, nire kasuan behintzat, ez nongoen ziur honetaz bizi nahi nuen edo ez. Karrera ikasten duzuna eta gero errealtatea ez datoz bat. Eta praktikei esker mundu hau gogoko dudala ikasi dut.

Hasieran mundu hotzaren sentsazioa ematen zidan, materialista, eta berez horrela da. Guk espazioekin eta materialekin jolasten dugu, baina ez da hain mundu materialista. Bezeroekin hitz egiten duzu, zer nahi duen jakin eta horrek hoztasun hori ezabatzen du, harreman bat eratzen delako. Ilusio handiz hartzen dituzte proiektuak Carlos eta Estefania estudioan eta hori igorri didate.

### Nola hartu zuten estudioan proiektua?

Oso ondo. Niri hasieran egin beharrekoa esan zidaten, ez nekien zertarako zen.

Ondoren azaldu zidaten eta harrituta geratu nintzen. Oso kontent egia esan.

### Kontatu pixka bat nolako izango den aireportu hori.

Pasilo luze bat dago erdian, edifizioa bitan zaitzen duena. Eskuineko zatian hiruhilabete daude, bionboekin banatuta. Baina beharra dagoenean, gela handi eta bakar batean bilakatu daitekeena. Gela horietako bakoitzean bi espazio daude, beharren arabera erabiltzeko. Eta hau da proiektuaren alde garrantzitsua.

Ezkerraldeko aldean batzargela bat dago. Bertan hiruhilabete banatzen dira, espazio handi bat konferentziak emateko, beste esparru bat elkarrizketa pertsonalak egiteko eta gero atil bat, galderak egiteko beste espazio bat.

Bi eremu hauek desberdintzeko, erdian lorategi bat dago. Dekorazioaren

Aparte da, horrela natura aireportuaren barruan sartzeko eta beste sentsazio bat emateko.

**SALAZAR PROFESIONAL**  
ILEA WINTZAKO E ABERGINTZAKO PRODUKTUAK  
Eguberrri jai  
zeriontsuak igaro!

**REVLO**  
PROFESIONAL

**ALCANTARA**  
L'OREAL

Geltoki Kalea 15  
Tel.: 943 360211  
salazar@salazarpro.net  
www.salazarpro.net

**Q**  
merkalitates

**WELLA**

**Koribil**  
HAUR JANTZIAK  
Eguberrri on!

Gabonetako eskaintzak  
% 20ko  
beherapena

Geltoki kalea 17 • Tel.: 943 045949 • 20160 Lasarte-Oria





# Gorka Iparragirre



Maltako VIP aireportuan hiru gela antolatu dira bisitari garrantzitsuen artean bilerak antolatzeko. Hiru gela hauek elkartu eta bat bakarria bihurtzeko aukera eskaintzen dute.

## Zein izan da zure lana proiektu honetan?

Nik altzari guztiak, pinturak, oihalak eta abar aukeratu ditut. Dena den, praktikak burutu ditudan estudioak estilo bat dauka eta estilo horri jarraiki altzarien aukeraketa eta banaketa egin dut.

Eta ondoren ere haien onarpena behar nuen aurrera jarraitzeko edo zeozer aldatzeko.

## Zer sentitzen da horrelako proiektu batean lan egin eta gero?

Egia esan sentsazio arraroa izan zen. Karrera amaitu berria nuen eta horrelako proiektu batean sartzeko ez nuen nire burua prestatuta ikusten.

## Pixkanaka-pixkanaka aurrera jarraitu nahi dut. Asko gustatzen zait proiektuak lan pertsonalean bihurtzea.

Ez daukat hitzik lan honek niretzako suposatzen duena azaltzeko. Oso kontent nago eman didaten aukerarekin eta oso gustura gauzatuak lanarekin.

Gure herrian oso zaila da horrelako proiektu batean barneratu ahal izatea, are eta gutxiago karrera amaitu berri-tan.

Aukera ikaragarria izan da, hara iritsi eta nire burua honelako proiektu batean ikustea... oso pozgarria.

## Eta nola ikusten duzu orain zure etorkizuna honelako lan garrantzitsu batean parte hartu otean?

Pixkanaka-pixkanaka aurrera jarraitu nahi dut. Asko gustatzen zait proiektuak lan pertsonalean bihurtzea eta horretan nago.

Han nabaritu dut Carlos eta Estefania estudioan proiektu askorekin egiten dutela lan, bai proiektu txikiekin eta baita lan handietan ere.

Aireportua egiteaz gain beste proiektu batzuetan ere hartu dut parte, adibidez, taberna edo jatetxe bateko diseinuan. Hango eraikitzaile batekin ere egin dugu lan, beraien edifikazio zentrala egiten.

Proiektu handietan bezeroarekiko harremana oso hotza izaten da eta nik harreman estua edukitzea dut gogoko.

Horregatik jatetxe edo antzeko proiektuak gustatzen zaizkit, bezeroarekin harreman gehiago daukazulako eta beraien ilusioa zurea egiten duzulako, zeozer eta zerbait espeziala sortzen ari zarela sentsazio edukiz.

Proiektu handiak zure gairak ditze pertsonalerako onak dira, ikasteko oso ondo etor-

tzen dira, baina nik behin probatuta proiektu txikiekin lan egitea dut gustuko.

## Gainera ez da praktiketan gelditu? Aurrera jarraitzeko aukera eskaini dizute?

Maltara itzultzeko eskaintza egin zidaten Carlos eta Estefania estudiokoei. Praktikak bukatu eta irailean bueltatzeko aukera lau hilabeteko kontratu batekin. baina irailean hurbiltzen ari zela hartuemanetan jarri eta azkenean urte baterako kontratua eskaini didate. Aste bete eman genituen baldintza eta soldata negoziatzen, azkenean baietza eman eta abentura berri honetan barneratu naiz.

Nik uste aukera hau aprobetxatu egin behar dudala nire bizitza profesionalerako pausu handia da eta asko ikasiko dudalakoan nago. Nire profesioaz gain, nire ingelesa hobetzeko oso ondo etorriko zait esperientzia hau.

## Zer moduz lankideekin?

Hango jendearekin oso gustura ibili naiz. Harreman berrietarako oso irekiak dira. Ohituak daude jende berriarekin lan egitera, honelako lanetan lan taldea asko mugitzen delako.

Lan estresatua da mila kontutan zaudelako. Proiektu guztiak ez dira aurreratzen baina guztiak landu behar dituzu. Horregatik lankideekin gustura sentitzea ezinbestekoa da lana behar bezala gauzatzeko. •

**NAROA PATXI LARRAÑAGA ANA IPARRAGUIRRE**

**Kale Nagusia 39**  
**Tel.: 943 372668**  
**Faxa: 943 370737**

**Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!**

**LIBRERIA MAITE**

**ondo igaro gabon jaietan!**  
**Geltoki 12 • Lasarte-Oria**  
**Tel.: 943 372791**

**MAIDER** *Eguberri on!*  
**Taberna-Jatetxea**

- Asteburuko menu bereziak
- Eguneko menuak
- Gaueko menuak
- Kartako zerbitzua
- Pintxoak
- Bokatak
- Razioak
- Plater konbinatuak

**Hipodromo etorbidea 7 • Tel.: 943 362700 • LASARTE-ORIA**

**COPILASARTE**  
**Eguberri on guztioi!**

- **ESTANPAZIOAK**
- **FAX-ZERBITZUA**
- **FOTOKOPIAK**

**Kale Nagusia 34 • Tel.: 943 366930**  
**Faxa: 943 366931 • Lasarte-Oria**





**75**  
**URTEURRENA**  
**1935-2010**



**ERAKUSKETA ETA DENDA**  
Geltoki kalea 21 • **LASARTE-ORIA**  
Tel.: 943 363147  
linterneriaillarreta@yahoo.es



**ILLARRETA**  
**ITURGINTZA**

*ondo igaro  
Gabon jaietan!*



**TAILERRA ETA BULEGOA:**  
Ugaldea polig. 8 • Tel.: 943 361752  
**OSURBIL** • illarreta@yahoo.es



- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emalea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzan eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen kordinazioa
- Arreta pertsonalizatua



*Bila bazabiltza, hementxe duzu*



gure **BETIKO** kafea



*Erabateko gutizia aurkituko duzue  
gure produktuetan!*



*Eguberri jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu!*

**GURE  
KALITATEA  
DASTATU**

**Pablo Mutiozabal 3 • Tel.: 943 364121 • 20160 LASARTE-ORIA**







# “Irakaskuntzan 33 urtean aritu ondoren nahikoa lan egin dudala iruditzen zait”

- Gaur, ostirala, erretiroa hartuko du Sasoeta-Zumaburuko soinketa irakasleak 60 urterekin
- Orain, lasai egon, paseatu, kirola egin eta batez ere bidaiatzeari eskaini nahi dio denbora

Beasaindarra jaiotzez, Lasarte-Orian eman du bizi-tza Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko soinketa irakasleak 1978an iritsi zenetik. Garai hartan ez zen oraindik herri bat eta orduan Urnietaren eremuan zegoen Oztarango eskola izan zen bere lehen lantokia. Bertan hamabost urte egin zituen, Sasoetan beste hainbeste egin ditu eta Landaberri ere ezagutu zuen duela urte batzuek, hiru urtez irakasle egon baitzen bertan. Guztira 33 urte egin ditu lanean eta beraz herritar asko ezagutzen ditu. Bizitza guztia herriko eskoletan irakasle izan ostean, 60 urterekin erretiroa hartzea erabaki du Floren Coliasak.



1993-1994 denboraldian Lasarte-Oriako nesken saskibaloia taldea lehen mailan zegoen eta Floren zen hauen entrenatzaile.

## Maidier AZURMENDI

**S**askibaloia eta irakaskuntza izan dira Floren Coliasen bi zaletasunak. Bere irakasle urte guztiak disfrutatu dituela aitortzen du harro.

Irakasle izatea bokazionala izan zela esan digu eta horregatik, orain, erretiroa hartzeko garaian, pena ere sentitzen duela. Ikasleei agur esatea izango da zailena berarentzat.

## Beti izan al zara soinketa irakaslea?

Hasieran lengoaia eta frantses eskolekin hasi nintzen. Egia esan denetatik ematea egokitu zait, garai batean ez zegoen espezialiterik.

Ondoren, plaza ateratzekoan, oposaketa matematika eta natur zientziak arloetan egin nuen eta horretan atera nuen irakasle lanpostua.

Horrekin batera, kirolarekin oso harreman estua izan dut nire bizitza osoan eta

horregatik bukatu nuen soinketa irakasle bezala.

## Zenbat denbora egin duzu soinketa irakasle?

Eskolan soinketa ematen hasi nintzela hamar urte baino gehiago egin ditudala uste dut. Betidanik izan dut kirolarekin harremana.

Batez ere saskibaloiarekin, duela ia 30 urte entrenatzaile izateko goi mailako titulua gairatu nuen eta horregatik soinketa ematen gozatu egin dut eta saiatu naiz kirolarekin nire zaletasun hori ikasleei ere transmititzen.

Lasarte-Orian nesken saskibaloia taldea egon zen eta ni aritu nintzen horretan entrenatzaile.

Lehen mailara iritsi ginen eta hori izugarria izan zen, gogoangarria. Besteak beste Txintxarri aldizkariaren lehen alean atera ginela gogoratzen dut, etxean gordeta daukat 1993-1994 denboraldian izan zen.

“ Soinketa oso gutxi baloratuta dago egungo hezkuntza sisteman

## Saskibaloia munduan jarraitzen al duzu?

Ez, semeak uztea erabaki zue-nean nik ere utzi egin nuen, urte asko ziren saskibaloia denbora eskaintzen, ia bizitza erdia. Hasieran saskibaloia jokalaria bezala aritu nintzen, ondoren entrenatzaile lanak egin nituen eta azkenik, saskibaloia federazioko zuzendari tekniko izan nintzen.

## Euskara ere ikasi behar izan zenuen ezta?

Bai ikasi behar izan nuen, euskaldun berria naiz. Urte pila dira euskara ikasten hasi nintzela, ez dut oroitzen zenbat baina egia esan asko kostatu zitzaidan eskolak emateko beharrezkoa nuen titulua ateratzea, hamar urte inguru, eta pertsonalki prozesua gogorra izan zen niretzat.

Azkenean lortu nuen eta azken urteetan noski eskolak euskaraz eman ditut.

## Zure ustez zein da gorputz hezkuntzak irakaskuntzan duen lekua?

Hasteko esango nuke soinketa oso gutxi baloratuta dagoela hezkuntza sisteman. Ordu gutxi eskaintzen zaizkio eta hezkuntza sailetik gainera, ordu hauek azken urteetan murritu besterik ez dituzte egin. Niretzako benetan erabaki larria izan da.

Soinketa oso garrantzitsua da osasunarentzat, aisiarentzat... baina badirudi ez dela horrela ulertzen. Gure

# YOLANDA TABERNA

Eguberri on !

Janariak ematen ditugu:  
astebukaerako menua,  
bokatak,  
sandwichak,  
plater konbinatuak,

Pintore I • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 110957



# INFORMATIKA MARTINEZ MULTIMEDIA







Irakasleak Sasoeta-Zumaburu eskolako gimnasioa izan du lantoki.

kasuan, eskola honetan behintzat, bi saio mantendu ditugu baina ikasleak instituturara iristerakoan ez dute soinketa irakasgaririk izango.

Niretzako ulertezina da benetan. Kontraesana da, izan ere erakundeetatik bidaltzen

zaigun mezua kirola egitea ona dela da, bizitza osasungarriago baten alde jokatu behar dugula esaten digute gure haurrak ez loditzeko etab.

Kirola egiteko ohitura txikitik lantzen ez bada, nola lortuko dugu kirolarekiko

zaletasun eta bizitza osasungarri hori? Lotsagarria iruditzen zait.

**Kirol gutxi egiten dela iruditzen zaizu?**

Bai, zalantzarik gabe, egoerak okerrera egin du azken urtee-

“ Sasoetako ikasleak penatuta daude. Askotan esan didate ez joateko.

“ Sumendiak gertutik ikusi nahi ditut. Lehen bidaia Hierro irlara egingo dut, han gertatzen ari dena ikusi eta sentitzeke.

tan eta batez ere emakumeen kasuan. Lehen Sasoetan, baita Michelinen ere, nesken saskibaloi taldeak zeuden, atletismokoak,... baina orain? ba al da bakarren bat? nire ustez larria da.

Egoera honen arrazoia nesken kirolak gizartearen duen babes falta dela pentsatzen dut. Etxean eta gizartearen, oro har, kirola egitearen garrantzia ez da behar bezala sustatzen, batez ere, nerabezaroan.

Eta azkenean, joera beste edozein ekintza egitea da ingelesa, musika, dantza, antzerkia... Ostadarrek esaterako, nesken futbola eskaintzen du baina zenbat talde daude? bakarra. Eta Gipuzkoa osoan? oso gutxi eta saskibaloiaren oraindik gutxiago. Nire ustez neskekin lan berezi bat egin behar da hauek kirola egitera bultzatzeko.

**Urte guzti hauetako esperientzian oinarrituta, haurrak desberdinak al dira orain?**

Haurrak asko aldatu dira bai. Aldeak handiak dira nire hasierako eta oraingo ikasleen artean, bestelako hezkuntza jasotzen da etxean eta hori eskolan islatzen da. Gizartea ere asko aldatu da eta egun lehiakortasuna bezalako baloreak bultzatzen dira eta hori gelan igartzen da.

**Zergatik erabaki duzu orain erretiroa hartzea?**

Zertarako luzatu, erretiroa 60 urterekin hartuko dut; irakas-kuntzan 33 urte egin ondoren nahikoa lan egin dudala iruditzen zait. Egia da oso pozik nagoela eskolan, haurrekin, osasunez primeran nagoela baina erabakia hartu behar zen eta orain da niretzako

momentu aproposena. Oraindik ondo nagoela aprobetxatu nahi dut emaztearekin egoteko, kirola egin, paseatu eta batez ere bidaiatzeko.

**Nora joateko asmoa duzu?**

Ikasleek barre egiten dute baina urteetako nire ametsa izan zen sumendi baten erupzioa bertatik bertara ikustea.

Duela urte batzuk lortu nuen amets hori betetzea, Costa Rican El Arenal sumendia ikusi nuen baina pixka bat urrutitik eta hotz geratu nintzen. Gertuagotik ikusi nahi dut. Lehen bidaia El Hierroa izango da, han gertatzen ari dena ikusi eta sentitu nahi dut.

**Ikasleek nola hartu dute zure agurra?**

Ikasleak penarekin daude. Askotan esan didate ez joateko eta niri ere pena ematen dit, ez pentsa, kalean elkar ikusiko dugula esaten diet, herrian topatzeko aukera izango dugula.

Beraientzat bizipen berria ere bada, esaten diet beraien hiru bizitza eman ditudala eskolan eta nahikoa dudala baina ez dute guztiz ulertzen. Aurrekoan batek esan zidan oraindik gaztea ikusten ninduela eta ea zergatik ez nintzen beste urte batzuk eskolan gelditzen. Beraien kezka orain, nire ondorengoa nola-koa izango den jakitea da.

Nire ibilbide profesionalen ez dut arazorik izan ez ikasle, guraso edota lankideekin eta hau esan ahal izatea oso pozgarria da niretzat. Oroitzapen on askorekin noa, oso pozik uzten dut eskolan disfrutatu dudalako. Irakasle bokazionala izan naiz eta egindakoaz harro nago. •

## ETXEZARRETA HARATEGIA



Eguberri jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu!



Hipodromo etorbidea 2 • Tel.: 943 361379  
LASARTE-ORIA





# Kirolak Lasarte-Orian

Kirol eskaintza zabala du Lasarte-Oriak, kirolari ugari eta marka zein emaitza onak ere bai, kirolarien urte osoko ahaleginari esker. Urtearen errepaso txiki bat egin dugu eta nabarmentzekoak dira Lasarte-Oriako krosean bi mila lagun baino gehiagok hartu zuela parte, 1500 korrikalarik proba nagusian, 300 lasarteoriatarrek, eta beste 600ek Kros Txikian. Atletismoan emaitza onak lortu dituzte nabarmenena Irati Larrañaga, hiruko

jauzian, Euskadiko txapeldun eta Espainiako txapelketan finalista. Txirrindularitzan ere emaitza onak eskuratu dituzte herriarrek, esaterako junior mailan Xabier Peñagarikano bi lasterketa irabazi, Paris-Roubaix-en parte hartu eta pistan Gipuzkoako Txapeldun izan da; Xabier Bengoetxeak beste bi lasterketa irabazi ditu, eta erlojuaren aurka Gipuzkoako txapeldun eta Euskadiko bigarren izan da; infantiletan

Boris Campook zortzi lasterketa irabazi ditu eta alebinetan berriz, Luken Carbayedak hamabi, tartean Gipuzkoako Txapelketa. Judoan, igeriketan eta gimnasia erritmikoan ere eskuratu dituzte herriarrek txapelak. Bestalde Maialen Chourrut palista da kirolaren elitean diharduena: Bratislavako Munduko txapelketan hirugarrena izan zen eta hamargarren aldiz Españako piraguismo txapelduna izan da.

## 2011ko kirol kronika: emaitza onez betea

Lasarte-Oriako txirrindulari, igerilari eta atleta gazteek txapelak lortu dituzte urtean zehar Urte osoan zehar egindako lan eta ereindako hazien fruituak jaso dituzte kirolari lasarteoriatarrek

### Jon ALTUNA EGITEGI

**E**z da erraza kirolaren urteko errepasoa egitekoan nondik hasi aukeratzeko, batez ere haur eta gaztetxoetan emaitza onez betea baita herriko kirolarien jarduna.

Lorpen batzuk nabarmen-tzearren Buruntzazpi Elkarteko txirrindulariak, LOKEko atletak eta judokak, Buruntzazpiko igerilariak eta herriko gimnastak oso ondo aritu dira Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan.

#### Txirrindulari bixkorak

BAZPI, Buruntzazpi Txirrindulari elkarteko arduradun Xabier Carbayedak aipatu digunez, denboraldi bikaina osatu dute euren gazteek. Guztira, 30 haur dauzkate, ez da kopuru handia, baina euren nahia behintzat betetzen du. Alebin eta infantilen entrenamendua bere gain hartzen ditu Carbayedak eta jubenil zein kadeteen ardura Ramon Unanue prestatzailearena da. Euren xedea, herrian txirrindularitza egin nahi duenari aukera ematea da, gazteek inguruko herrietara joaten ibili beharrik izan ez dezaten.

Emaitzei dagokienaz, lorpen esanguratsuak lortu dituzte pasa den denboraldian,

bereziki junior mailan. Aipatzekoa da hiru txirrindulari besterik ez direla aritu lehian maila horretan, eta Xabier Peñagarikano eta Xabier Bengoetxeak eskuak altxatzea lortu dutela. Peñagarikanoren kasuan, bi lasterketa irabazi zituen errepidean –denboraldiko lehen zatian– eta horrek junior mailako Paris-Roubaix lasterketa sonatuan parte-hartzeko aukera eman zion. Bertan, zorte txarra tarteko, erori eta eskafoidea hautsi zuen. Denboraldi bukaerarako ordea osatu, eta Udazkeneko Kriteriumean hirugarren postua erdietsi zuen. Bide batez, aipatu beharra dago pistan Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuela.

Bengoetxeak berriz, bi lasterketa irabazi zituen linean (Deba eta Seguran), erlojuaren aurkako txapeldun izan zen Gipuzkoako Txapelketan, eta disziplina berean, bigarren sailkatu zen Euskadiko Txapelketan.

Kadeteen kasuan, bi aritu dira lehian, Luis Sobejano eta Xuban Razkin; infantiletan aipatzekoa da Boris Campook zortzi lasterketa zakuratu zituela eta alebinetan berriz, 12 lasterketa irabazi zituen Luken Carbayedak (tartean Seguran egin zen Gipuzkoako Txapelketa). Orokorrean esan daiteke taldea gaztea bada



Luken Carbayedak Infantil mailako Gipuzkoako txapelketa eskuratu zuen Seguran.



Garazi Gomez.

ere, emaitza esanguratsuak lortu dituztela, nahiz eta Carbayedak aipatu bezala ez diren "helburu", euren xedea arestian esan bezala, herrian txirrindularitza egin nahi duenari aukera bat ematea da.

#### Gimnastika erritmikoa

Ez da oso kirol ezaguna Euskal Herrian gimnasia erritmikoa, baina Lasarte-Orian bada kirol hori praktikatzen duen talderik. Maite Rueda da gimnasten entrenatzailea eta

beste bi prestatzailek laguntzen diote bere lanean, Amaia Calvo eta Nahiara Cid-ek hain zuzen ere.

Denboraldi polita osatu dute herriko Garazi Gomez eta Aizpea Arroyo gimnastek. Lehen jubenil mailan aritu da eta Gipuzkoako Txapelketan txapeldunorde izan zen.

Egindako denboraldi bikaina dela eta, aurtengo mailaz igo dute, gorenera, senior A mailara, eta aurtengo bere helburua "parte-hartu eta ikastea"

ondo igaro gabon jaietan !

• EUSKAL HERRIKO SUKALDARITZA

• JANGELA EGOKI-EGOKIAK,  
EZKONTZAK, JAUNARTZEAK  
ETA BESTE EDOZER OSPATZEKO

• ETXEKO ESPEZIALITATEA:  
PARRILLAN ERRETAKO  
ARRAINA ETA HARAGIA.

# DANA ONA JATETXEA

restaurante@danaona.com  
Zubieta (Hipodromoaren ondoan)  
Tel.: 943 365347/943 361731 • Faxa: 943 366020







Irati Larrañaga, Gaizka Ormazabal eta Ane Galardi LOKEko atletak Gipuzkoako txapelketako dominarekin.

izango dela adierazi digu bere entrenatzaile Ruedak.

Aizpea Arroyo berriz, kadete mailan lehiatu da, Gipuzkoa mailako txapelketan 6. postua eskuratu zuen eta aurtengorako harengan "itxaropen handiak" dituztela azaldu digu.

Aipatzekoa da halaber, taldekako lanean kadete mailan Gipuzkoako 7. postua eskuratu eta hori dela eta, Euskadiko Txapelketara igaro zirela, taldeko gainontzeko gimnastak bezala.

### LOKEko atletak bikain

Oscar Santamaria LOKEko atletismo taldeko entrenatzailea pozik dago bere neska mutilek egin duten denboraldiarekin. Lau izen aipatu ditu, denboraldi bikaina osatu duten lau atleta gazte beste guztien gaineratik. Lehen, Espainiako txapelketetara joateko hiru gutxieneko denbora lortu dituen Gaizka Ormazabal. Aire librean 400m hesidunetan lortu zuen marka eta pista estalian berriz, 200 eta 400 metrokoan.

Ane Galardik ere denboraldia borobildu egin zuen pista estaliko Espainiako Txapelketan seigarren postua eskuratu zuen jautsian.

Irati Larrañaga berriz, Euskadiko txapelduna izan zen hiruko jautsian eta Espainiako txapelketan berriz, zortzi onenen artean sailkatu zen.

Herrikoa ez bada ere, aipatzekoa da Itoitz Rodriguezek eginiko denboraldia, fondo erdiko atleta bada ere, Euskadiko txapelketan urrezko domina asko erdietsi zituen infantil kategorian. Bestalde, gaztetxoekin egiten duten lanarekin gustura dago eta hasi berri den denboraldiari begira, kadete mailan nesken taldea osatzea gustatuko litzaieke.

*“ Irati Larrañaga LOKE taldeko atleta lasarteoriatarra Euskadiko txapelduna da hiruko jautsian.*



Maialen Chourraut, irailaren 11ean lortu zuen brontzeko dominarekin.

## Maialen Chourraut da kirolari internazionalena

Gaztea izanagatik ere, -1983an jaioa da-, emaitza oso onak lortu ditu piraguismoan Maialen Chourraut herritarrek aurretik ere mundu mailan.

BAT Basque Team proiektuan sartuta dago eta haren babesari baliatuz, hara eta hona ibiltzen da mundu osoko kanaletan barrena K1 mailako txapelketa ezberdinetan parte-hartzen.

Aurten bertan, Espainiako Txapelketa hamargarren aldiz irabazi du eta irailean brontzeko domina jantzi zuen Bratislavako Munduko

Txapelketan. Hala ere, gogorazi behar da eguraldi petrala tarteko, sailkapen probetan kanpoan geratzetik hurbil egon zela Chourraut.

Hurrengo erronka nagusia, urtebete barru, 2012ko uztailare 27tik aurrera egingo diren Londreseko Olinpiar Jokoetan itxura ona ematea da. Horretan jarriak ditu gogo eta arima. Izan ere, 2008ko Beijingko Joko Olinpikoetako sailkatze proban kanpoan geratu izanaren arantza kendu nahiko du horrela herriko kirolari internazionalenak.



**Ondo igaro  
Gabon jaietan !**

**Bias de Lezo 5, behea  
Tel.: 943 370254  
LASARTE-ORIA**

**Maite  
Erkizia**

**ILE-APAINDEGIA  
ESTETIKA**

**MEKANIKAKO  
TAILERRA**



DIMETAL S.A.

**IVECO**

ZERBITZU OFIZIALA



LOMBARDINI

**SAN JOSE-OLAIZ**

• Kamioien txasia konpontzeko  
oinarria.

• Aluminiozko eta burdinazko  
soldadurak.

• Industriako ibilgailuen konponketa.

**Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu !**

**Ordutegia: 8:30 - 20:30**

**Zirkuitu ibilbidea 6 • 20160LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361857 • Faxa: 943 366508**





# Kirolak Lasarte-Orian

“Entrenatzeko modua aldatu eta hasieratik gora egin zuten igerilari denek nabarmen. Nabaritu zen markatan

## Aldaketa urtea igeriketan

Buruntzaldea IKT-ko entrenatzaile Borja Apeztegiak azaldu digunez, igerilari gazteek denboraldi biribila egin dute, aldaketa askoko urtea izan baita haientzat.

Taldeak entrenamendu ohituretan maila arrunta zuela esan digu, eta txapelketetan nabari egiten zela hori. Beraz, urte hasieran, Borja Apeztegia prestatzaile berriak entrenatzeko modua aldatu egin zuen. “Lehenengo txapelketan bertan hasi ziren neska-mutil guztiak aldaketak igartzen, gora egin zuten denek nabarmen, marka onak egin zituzten eta entrenatzeko motibazioak ere gora egin zuen”. Hala ere, garbi du emaitzak ez direla helburua,

ondo egindako lanaren ondorioa besterik ez direla dio.

Igerilarien denboraldia bitan zatitzen da, lehen zatia “neguko denboraldia” deitzen diote, eta bigarrenari berriz, “udako denboraldia”.

Lehen zatian, bi igerilarik egin zuten Espainiako Txapelketara joateko gutxieneko denbora, Haitz Mitxelenak eta Iñigo Ibarburuk hain zuzen. Lehenak, ez zuen parte hartzerik izan hala ere Sabadellen jokatu ziren Espainiako Txapelketan, epez kanpo lortu baitzuen gutxieneko denbora 200 metroko tximeleta estiloko proban.

Iñigo Ibarburuk berriz, 100 metro libre eta 100 metro txi meletan lortu zuen sailkatzea



Iñigo Ibarburu bikain aritu da aurtengo igeriketa denboraldian. Irudian Borja Apeztegia eta Itsaso Tolosarekin.

eta proba bietan lehen hamarren artean sartu zen Sabadellko Espainiako Txapelketan.

Bestalde, Gipuzkoako Klubaren Kopan mutilak hirugarren eta neskak bosgarren postuan amaitu zutela eta martxoa aldera izan ziren Euskadiko Txapelketetan taldeko igerilari guztiak sailkatu zirela azpimarratu nahi izan du Apezte-

giak. “Hori denboraldi hasieran ez litzazieke inondik inora burutik pasako, taldeko guztiak egin zuten sailkatzeko exigitutako gutxieneko denbora, eta hori ez da gauza makala”, aitortu digu.

## Udan ere ondo

Udarako denboraldia modu berean joan zen Buruntzaldea IKT-ko igerilariarentzat, maila ona ematen jarraitu zuten eta markak are hobek egin zituzten. Horren erakusgarri da udarako denboraldian igerilari gehiagok lortu zutela Espainiako Txapelketan izatea.

Oraingo honetan, Haitz Mitxelen tximeleta estiloko 200 metroko proban aritu zen, jubenil mailan; Iñigo Ibarburuk bost probetan gutxieneko denbora lortu bazuen ere, lautan soilik parte-hartu ahal izan zuen araudiak hala aurreikusten duelako infantilen kategoriarako. Honetan, Itsaso Tolosa batu zitzaizen bi gutxieneko denbora eginaz, 100 eta 200 metroko bizkar estiloan.

Gauzak horrela, balorazio “oso positiboa” egiten du Apeztegia entrenatzaileak. “Beraiek lanean ondo ari dira, talde giroa oso ona da eta emaitzak hori guztiaren ondorioa besterik ez dira.

## Pilotan kadeteak ondoen

Jose Felix Solano, Intza pilota eskolako arduradunarekin ere aritu gara hizketan. Urte osoan zehar lana gogotik egin dute eta Gipuzkoako txoko askotan egon dira herriko pilotariak txapelketa ezberdinetan parte-hartzen.

Solanok azaldu digunez, Herriarte Txapelketan kanpoan geratu ziren final-zortziarenetan Bidegoianen aurka galdu ostean. Hori dela eta, zerrendaburu izaera galdu egin dute eta lehen faseetik hasi beharko dute txapelketa berriro datorren urtean.

Bestalde, 1. eta 2. mailako alebin, infantil eta kadeteek Gipuzkoako txapelketan parte-hartu zuten.

Esanguratsuen kadeteek egin zuten balentria izan zen, 2. mailako Arteaga eta Aranguren bikoteak, aldiz, txapeldunorde izatea lortu baitzuten.

Kolpe latzena berriz, senior mailan hartu zuten. 3. mailan taldea badaukate ere, lehenengo mailakoek maila galdu eta bigarrenaren aritu beharko dutelako 2012 denboraldian. Hala ere, baikor mintzo da Solano, eta hurrengo urtean maila errehabilitazioa posible dela uste dute.



**David Martinen azken garaipenak.** Aurtengo denboraldian beste batzuetan baino garaipen gutxiago lortu baditu ere, aurreko postuetan ibili da herriko korrikalari ezaguna. Besteak beste, Zumaia Zakila Bira maratoi erdian nagusitu zen eta bigarren postua eskuratu zuen Lasarte-Oria Bai! etxeko kroasean zein Hernani eta Andoingo krosetan. Hurrengo urtean goi-mailatik aparte ibiliko dela adierazi zuen Txintxarri urrian: aurtun egiten duenaz gozatzea beste helbururik ez duela esan zuen. •

## Bideo Lagunak

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

**BEGIRATU GURE ESKAINTZAK !**

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134  
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com



Inguruko erakusketarik onena!

Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin





**PINTXOETAN  
AUKERA ZABALA**

**KAFE BEREZIAK:  
IRLANDESA  
ESKOZESA  
KAPUTXINOA  
BONBOIA**



**Eguberri eta Urteberri egunetan  
12:00etatik aurrera  
IREKITA !**

**Eguberri eta Urteberri on !**

**GABON ETA URTEZAHAR GAUETAN  
GAU OSOA IREKITA !**

**Pablo Mutiozabal 2 • Tel.: 943 369508 LASARTE-ORIA**

**jai gi**  
**KAFE-ANTZOKIA**



**EGUBERRI ON !**



**GELTOKI KALEA 4 BEHEA  
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377024**



## Futbol taldeen kritika Michelingo zelaia- ren baldintza kaxkarrei

Berdegunea berritu beharra ikusten dute Texas eta Ostadar taldeetako ordezkariak

Futbol talde asko dira maila ezberdinetan Lasarte-Orian eta arazoak dituzte denek Michelinen entrenatu eta jokatzeko. Futbol zelaia oso egoera kaxkarrean dagoela eta kexa adierazi dute Ostadar eta Texas taldeetako arduradunek. Hala ere ulertzen dituzte Udalaren zailtasunak.

**O**stadar Saiarre Kirol Taldeko Imanol Bardaji kirol arduradunetako batekin hitz egin dugu. Hark esan digunez, joan den denboraldian, aste-  
ro, 600 lagunek parte-hartzen dute modu batera edo bestera Ostadarrek antolatutako kirol eskaintzaren batean.

Oro har, joan den denboraldiarekin "oso pozik" dau dela aitortu du Bardajik, bidean mota askotako zailtasunak topatu badituzte ere, gehienbat ekonomikoak. Eta Udalak Lasarte-Oriako kirol taldeei orokorrean eskainitako diru-laguntza "penagarria" dela esan du: irauli beharreko zerbait da hori bere ustetan.

### Kros arrakastatsua

Lasarte-Oriako Krosa, kirolaz gaindi dagoen ekitaldi bat dela uste du Ostadarreko arduradunak, herriaren indarra agerian uzten duen lasarteoriarren festa eguna, eta aurtengoa ez da salbuespena izan Bardajiren hitzetan.

Urtetik urtera gora joan izan da eta aurtengo baino parte-hartzaile gehiago izan dira XVI. Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoian, bi mila lagunetik gora. Non ote du muga?.

### Futboleko 10 talde

Futbolari dagokionez, guztira hamar talde dauzkate Ostad-

arren eta Bardajik jakinarazi digunez. Gorengo Erregionaleko taldearekin igotzeko puntuan izan ziren aurreko denboraldian.

Entrenatzerako orduan zenbait arazo izan dituztela nabarmendu du, talde gehiegi daudelako futbol zelai bakarrarentzat. Gainera, Michelingo berdegunea egoera oso txarrean dagoela iritzi dio: "Duela hiru urtetik datorren kontua da, aurtengo udan aldatu behar zuten printzipioz, baina aurreko Udalak ez zuen ezer egin. Orain udalean daudenei ezin errurik bota, aldatuko dutela hitz eman baitigitu".

### Kirol eskaintza zabala

Futbolaz gain, hainbat talde dauzka Ostadarrek. Rugby taldea (Ostadarrek klub babsa baino ez dio ematen; entrenatzaileak eta azpiegitura Beltzak taldearen esku daude), atletismo taldea, zikloturista taldea, mendi taldea eta tenis eskola besteak beste. Alor guztietan, egindako denboraldia ona izan dela uste du, bere funtzioa bete dutela behintzat.

Hurrengo denboraldirako helburuei buruz galdetuta, kirol eskaintza ahal den neurrian igotzea eta nesken kirola ahalik eta gehien bultzatzea direla esan du. •



Ostadar Texas derbiko irudia. Bi taldeek kritikatu dute Michelingo zelaia-  
ren egoera.

### Maila oso altua dute areto futbol taldeek

**H**erriko areto-futboleko bi taldeek denboraldi ona burutu dute. Aldaz Hertz Klinikaren kasuan, mantendu egin dira Nazional B mailan.

Gogorazi behar da Aldaz lehiatzen ari den kategoria oso maila altua dela eta mantentze hutsa balentriatatzat har daitekeela.

ISU Lehiak taldea berriz, Gipuzkoako Ligan aritu da aurtengoan, baina egindako denboraldi borobilen ostean, Euskal Ligara igotzea lortu du. •

## Texas taldea kopa irabazten ahaleginduko da aurtengoan

**F**utbolarekin jarraiki, Koldo Ageitos Texas taldeko entrenatzailearekin ere bildu gara. Hark esan digunez, euren denboraldia bitan zatitu zen Erregionalen mailan. Euren helburua igoera fasean sartzea bazen ere, azkenean gutxiagatik geratu ziren kanpoan. Horregatik, Kopa jokatu behar izan zuten berriro ere. Txapelketa hura "oso ondo" egin zutela aitortu digu eta bigarren postuan sailkatu zirela partida bakarra galduta.

Mutilek emandako mailarekin eta egindako lanarekin "gustura" agertu da maila hauek zailtasunak kontutan izanik.

Michelingo futbol zelaia-  
ri dagokionez ere, kexa azaldu

du Ageitosek. Berdegunea aldatzea beharrezkotzat jotzen du, nahiz eta onartzen duen oraingo krisi egoeran hagitz zaila izango dela Udalarentzat.

### Baja ugari

Hurrengo urterako helburuen inguruan galdetuta, erregionaleko mailan igotzeko aukerarik ez dutela esan du Ageitos-ek, aitasun baxak, lan kontuak edota lesioak dituztelako hamaikakoan, baina ahal duten guztia egingo dutela adierazi du Kopan garaile atertzeko.

Hala ere, pozik egoteko moduan dira Texasen, Kadete eta Jubenil mailan, 1. kategoria-  
rian taldea ateratzea lortu baitute hurrengo denboraldirako. •

## M. Berasategi

### Kafeak



Beti dago aukera  
kafe on bat hartzeko

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!



### INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erh)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a...

### TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

### KAFE ARABIKOA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA



Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316  
LASARTE-ORIA







ISU eta Aldatz Areto Futbol taldeak aurten jokatu duten derbian.



Ostadar Atletismo taldeko Javi Olazagoitia Erromako maratoian.



Lau harrijasotzaile dira etxean. Iraitz falta da, Befat da txikiena eta aurrean Urtzi Luis Mari aitarekin.

## Telleria harrijasotzaile-familia

**T**elleriatarrek betidanik erakutsi izan dute badela herrian harrijasotzaile treberik. Luis Mari aitaren bideari jarraituz, gustura aritu dira aurtengo denboraldian semeetako bi: Maiatzaren 28an, Urtzi Telleriak, anaia zaharrenak, Gipuzkoako Harri Txikien txapelketan parte hartu zuen Urnietan.

Irabazlea Aimar Irigoien izan zen, guztira, 9.050 kilo

jasota; Urtzik, aldiz, 7.524 kilo altza zituen eta txapelketako hirugarren postua eskuratu. Usurbilgo Santxabel festetan egindako harrijasotzaile lehiaketan, aldiz, txapelduna izan zen.

Era berean, erronka handia izan zuen ekainaren 19an, Aian, 163 kiloko harri errektangular zaharrarekin bost minututan marka pertsonala egiteko ahaleginean.

Eta lortu zuen. Bost altxaldi egin zizkion, bere pisuaren (77 kilo) bikoitza duen harriari.

Bestalde, ekainaren 6an, Adunan, Gorostidi Harria altxatzen ausartu zen, Telleriatarren txikiena, Befat.

Hamabost urterekin 137 kiloko harri irregularra sei alditan jaso zuen eta ahoa bete hortz utzi zituen plazan bildutako guztiak. •

## Curiel, Olmos eta Garrido Espainiako Sanbo txapeldun

**G**orka Aristegik baditu pozik egoteko motiboak. Berak entrenatzen dituen LOKE-ko judoek denboraldi paregabea osatu baitute.

Amaia Curiel, Josu Olmos eta Mario Garridok Espainiako sanbo modalitateko txapelketan urrea eskuratu dute. Hori dela eta, "etorkizuneko kirolari" delakoak izendatu dituzte. Horrek, Gipuzkoako Diputazioaren diru laguntza bat jasotzea ahalbidetuko die hasi berri den denboraldirako. Leire Zubizarretaren kasuan, nesken borroka libre Olinpiko-ko Espainiako Txapelketan gailendu zen eta Amaia Curiel berriz, bigarren sailkatu zen.

Judoari dagokionez, bost Euskadiko Txapeldun izan

zizuten igaro berri den denboraldian: Leire Zubizarreta, Josu Olmos, Mario Garrido, Kiara Tobajas eta Fermin Balda. Horietaiko bik, Olmos eta Garridok lortu zuten Espainiako Txapelketan egotea. Aipagarria Garridok lorturiko zazpigarren postua 23 urtez azpikoan mailan.

Hurrengo urteari begira, helburu da, alde batetik, txapelketetan aritzeko ekipoarekin aurtengo lortutako maila mantentzea, Aristegik esan digunez. Bestetik, aisialdiko talde bat ere badute eta bertara sasoiari mantendu nahi dutenak edota lanagatik gehiago entrenatu ezin dutenak joaten dira. Haiekin ere lanean gogoz jarraitze-ko asmoa dute. •



Amaia Curiel Gorka Aristegi entrenatzailearekin entrenamendu saio baten aurretik.

# Garcia

## AUTOBUSAK

**Nafarroa etorbidea 32-2. A**  
**(Leku Eder etxea)**  
**Tel.: 943 372737**  
**20800 ZARAUTZ**

ondo pasa gabon jaiak!

- Edozeln eratako bidaiak egiteko zerbitzu aproposak.
- Bestelako zerbitzuak.





# Iñigo Artola ren lorpen berriak



Behobia-Donostia lasterketan parte hartu zuten keniatarrek Kristina Enea perkean harrapatu zituen.



Gontzal Mendibil eta Urko abeslariak ere

## Iñigo Artolak urte oparoa izan du.-

Aurten ere, lanpetua egon da Iñigo urtean zehar. Hainbat kirolari, bertsolari, musikari eta politikarien argazki eta sinadurak lortu ditu.

Baina, Zinemaldian lortu zituen bere altxorrik preziatuenak, Jose Coronado, Pilar Bardem, Mikel Olaziregi edo Kontxu Odriozola, besteak beste. •



Martin Garitano Aldun Nagusia eta Juan Karlo Izagirre Donostiako alkatearekin.



Julie Delpy aktore eta zuzendari frantsesa aurkitu zuen Okendo tabernan.



Estatuko aktoreak ere ez dira falta, Maria Leon, Inma Cuesta edo Miguel Angel Silvestre.



Zinema munduko izarrekin ere egon da Iñigo. Irudietan, Michael Resselbender eta Bai Ling aktoreak.



Eguberri on!

Ez ezazu ahaztu.  
Gogoratu zaitez berataz



Green enparantza 2 behe (Urbarteko parkearen parean) • Lasarte-Oria 20610  
Tel.: 943 576313 • info@canneslasarte.com • www.canneslasarte.com





**A. Arregi**   
 eraikuntzako materialak  
 Gabon jai zoriontsuak  
 opa dizkizuegu!

ERAKUSKETA  
 Goikale 2  
 Tel./Faxa:  
 943 365947

BILTEGI NAGUSIA  
 Oria etorbidea 6 • Tel.: 943 366473 • 943 370998

Eguberri on! **Riojanos**  
 Erretegia  
 Afariak,  
 bazkariak,  
 pintxoak,...



Uistin kalea 13 • Tel.: 943 362720 • LASARTE-ORIA

 **Antonio Benito**  
 Ondo igaro gabon jaiak!

Erregistratzeko kutxak  
 eta pantaila taktila  
 dutenak

Aralar plaza 1, behea  
 Tel.: 943 371313  
 20160 LASARTE-ORIA  
[www.antonibenito.net](http://www.antonibenito.net)



Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

 **ISU**

- POLIURETANOAK
- PVC
- ALUMINIOA
- ZUBI TERMIKOAREN HAUSDURA
- ATE-LEIHOAK
- PERTSIANAK
- TOLDOAK
- DEKORAZIOA

Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 366495 • Faxa: 943 365222



**Garmendia**  
**OIKALAK**  
 eguberri on!



Ondo igaro Gabon jaiak!

- EGUNEKO MENUA
- ASTEBURUETAKO MENUA
- TRADIZIOZKO SUKALDARITZA
- ETXEKO POSTREAK

 **Larre**

Larrekoetxe bidea 10 • LASARTE-ORIA  
 Tel.: 943 361012 / 943 360480

**MANOLI**  
**estankoa**  
 Gabon zoriontsuak  
 opa dizkizuegu lagunarte ederrean!

Geltoki 15 • Tel.: 943 362492 • LASARTE-ORIA

Eguberri jai zoriontsuak opa dizuegu!

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

 **ARREGUI**

[www.electricidadarregui.com](http://www.electricidadarregui.com)

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA  
 Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

 **AIZPURUA**  
**Pinturak**

\* Pintura plastikoak bereziki.  
 \* Nahi duzun kolorea egingo dizugu momentuan.

Ondo pasa  
 Gabon jaietan!

Zumaburuko industrialdea  
 LASARTE-ORIA  
 Tel.: 943 362153



Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Eguberri on!

**MAITE**

ESTETIKAKO ARETOA

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria





## Egunero

### Haur parkea

EGUBERRIETAKO HAUR PARKEA abenduaren 31ra arte Michelingo Udal Kiroldegian.

Abenduaren 24 arratsaldean, 25ean egun osoz eta 31 arratsaldean parkea itxita egongo da.

Haurrek sarrera doan izango dute eta helduek euro bat.

Ordutegia 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara izango da, bi txandatan; lehenengo txanda 11:00-12:30 eta 17:00-18:30, eta bigarren txanda 12:30-14:00 eta 18:30-20:00.



## Egunero

### Erakusketa

ESTUDIO DEL PINTOR akademia-ko ikasleen erakusketa, hila-bete bukaera arte. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **egun osoa**.

GATO URBISTONDO artistaren lanen erakusketa, urtarilaren 10era arte. SIGLO20 TABERNAN, **egun osoa**.

## Ostirala, 23

### Skate festa

SKATE, ROLLER, MUSIKA, BEAT-BOX... Kale hezitzaileek antolatuta. SKATE PARKEAN, **16:00etan**.

### Prestaketa

KRISEILUAK ETA JANTZIAK presta-tuko dituzte GAZTE KLUBEAN. ERRIBERA KALEKO LOKALEAN, **16:00etatik aurrera**.

### Jokoak

BIDEZKO KOMERTZIOA ULERTZEKO joko eta dinamika egingo ditu OSTARTE GAZTE TALDEAK. ATSOBAKAR ZAHARREN EGOITZAN, **17:45ean**.

### Kontzertua

"THE UPPER ROOM" taldearen Gospel emanaldia izango da,

Danok Kideek antolatzen dituen VII. MUSIKA TOPAKETEN barruan. AMA BRIGITARREN KOMENTUAN, **19:30ean**. EUSKARAZ ETA INGELERAZ

## Larunbata, 24

### Kantaldia

ZABALETA AUZOKO kideek OLENTZERORI ONGI ETORRIA emateko kantari arituko dira auzoan eta inguruko baserrietan. ANTONIO BLAS PLAZAN, **10:00etan**.

### Kantaldia

NAXIMENTUAREN LAGUNAK kantari arituko dira eta lortutako dirua Nikaragua bidaliko dute, Alejandro Romoren elkarteari esker. HERRIKO KALEETAN ZEHAR, **10:30ean**.

### Kantaldia

ERKETZ EUSKAL DANTZA TALDEA Olentzeroren etorrera jakin arazteko Gabon kantak abestuko da. ZUMABURU IKASTETXETIK HASITA, **14:30ean**.

### Kantaldia

ALBOKA ABESBATZA Atsobakar auzotik aterako da eta herriko kaleetan Gabon kantak abestuko da. HERRIKO KALEETAN ZEHAR, **17:00etatik aurrera**.

## Astelehena, 26

### Euskal Astea

GAZTE KLUBEKO LH3, LH4, LH5 eta LH6 mailako kideek EUSKAL ASTEA izango dute. Iñigo de Loiola kaleko GAZTE LOKALEAN, **11:00etatik 13:00ak arte**.

### Kantaldia

BIYAK BAT ELKARTEKO ABESBATZAK emanaldia eskainiko du. ATSOBAKAR ZAHARREN EGOITZAN, **18:00etan**.

## Asteartea, 27

### Irteera

KUADRILLATEGIKO GAZTEEK Madrilgo Warner parkera irteera egingo dute.

### Euskal Astea

GAZTE KLUBEKO LH3, LH4, LH5 eta LH6 mailako kideek EUSKAL ASTEA izango dute. Iñigo de Loiola kaleko GAZTE LOKALEAN, **11:00etatik 13:00ak arte**.

## Asteazkena, 28

### Familiaren eguna

"BICICLETA, CUCHARA, MANZANA" Alzheimerri buruzko dokumentalaren BIDEO-FORUMA egingo dute, familiaren

egunean. ATSOBAKAR ZAHARREN EGOITZAN, **17:30ean**.

### Euskal Astea

GAZTE KLUBEKO LH3, LH4, LH5 eta LH6 mailako kideek EUSKAL ASTEA izango dute. Iñigo de Loiola kaleko GAZTE LOKALEAN, **11:00etatik 13:00ak arte**.

## Osteguna, 29

### Ur festa

Herriko 5 eta 12 urte arteko haurrek primeran gozatzeko aukera izango dute UR FESTAN. UDAL KIROLDEGIKO IGERILEKUAN, **9:30etatik 12:30ra bitartean**. Ez bazkideek sarrera ordaindu behar dute

## Ostirala, 30

### Irteera

GAZTE KLUBEKO KIDEEK BECen antolatzen den Eguberrietako Haur Parkera egingo dute txangoa. ZUMABURUKO AUTOBUS GELTOKIA, **10:00etan**.

### Gazteentzako jarduerak

Twister, futbito, herri kirolak, txapak tailerrak, etab. jardue- ra antolatu dira herriko gazteentzat. OKENDO PLAZAN, **16:00etatik aurrera**.



**Gas-instalazioak,  
berokuntza eta iturgintza**

### Ordutegia

**9:00 - 13:00  
16:00 - 20:00**

# SAMPICAN

**Kale Nagusia 69, behea • Tel: 943 360165  
LASARTE-ORIA**

**Izan Eguberri zoriontsuak !**



# txintxarri

Kultur Elkarte

**Ttakun**

**Ttakuneko kide  
guztien partetik**

**EGUBERRI ETA  
URTEBERRI ON**





## Larunbata, 24

### Jaialdia

OLENTZERORI ONGI-ETO-  
RRIA egingo zaio Lasarte-  
Orian.

**17:00etan**, KALEJIRA  
Loidi-Barrengo pilotale-  
kutik aterako da.

**17:30ean**, JAIALDIARI  
hasiera, OKENDO PLAZAN.

**18:00etan**, Olentzerori  
ESKUTITZAK ETA MUXUAK  
emateko aukera.



### Emanaldia

JALGUNEKO gazteek ekitaldia  
eskainiko dute. ATSOBAKAR  
ZAHARREN EGOITZAN, **17:45ean**.

## Igandea, 01

### Sari banaketa

XIX. JAIOTZEN LEHIAKETAKO sari  
banaketa. Danok Kide elkar-  
teko egoitzan, **12:00etan**.

## Astelehena, 02

### Bitxiak eta magia

GAZTE KLUBEKO LH5 eta LH6  
mailako kideek BITXIAK egite-  
ko eta MAGIA IKASTEKO TAILE-  
RRAK izango dituzte. Iñigo de  
Loiola kaleko GAZTE LOKALEAN,  
**11:00etatik 13:00ak arte**.

## Asteartea, 03

### Bitxiak eta magia

GAZTE KLUBEKO LH5 eta LH6  
mailako kideek BITXIAK egite-  
ko eta MAGIA IKASTEKO TAILE-  
RRAK izango dituzte. Iñigo de  
Loiola kaleko GAZTE LOKALEAN,  
**11:00etatik 13:00ak arte**.

### Ekitaldia

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOKO  
BATUKAKO taldearen saioa.  
ATSOBAKAR ZAHARREN EGOITZAN,  
**17:30ean**.

### Irteera

KUADRILLATEGIKO GAZTEK Are-  
terra ESKIATZERA irteera egingo  
dute.

## Asteazkena, 04

### Bitxiak eta magia

GAZTE KLUBEKO LH5 eta LH6  
mailako kideek BITXIAK egite-  
ko eta MAGIA IKASTEKO TAILE-  
RRAK izango dituzte. Iñigo de  
Loiola kaleko GAZTE LOKALEAN,  
**11:00etatik 13:00ak arte**.

## Osteguna, 05

### Opari banaketa

ERREGEEI HARRERA eta opari  
banaketa egingo diete ATSO-  
BAKAR ZAHARREN EGOITZAN,  
**11:00etan**.

### Eskutitza prestatu

Errege Magoei bidaltzeko  
GUTUNA PRESTATZEKO TAILERRA  
eta MEGABAK antolatutako  
MARRAZKI LEHIAKETAKO SARI  
BANAKETA. OKENDO PLAZAN,  
**12:00etan**.

### Kabalgata

ERREGREEN KABALGATA Oriatik  
abiatuko da **18:00etan** eta  
OKENDO PLAZAN amaituko da.  
Bertan ERREGEEI GUTUNA EMATE-  
KO AUKERA egongo da.

## PRESOEN LAGUNAK

### TALDEAREN

### EGITARAUA

#### Abenduaren 26 astelehena

**18:00etan**, Bea Egizabal  
ipuin kontalaria, lokalean.

#### Abenduaren 27 asteartea

**18:30an**, Zigor Lanpre DJ-ak  
saio didaktikoa eta musika  
jartzea, lokalean.

#### Abenduaren 28 asteazkena

**18:00etan**, Porrotx, lokalean.

#### Abenduaren 29 osteguna

**19:00etan**, Bertso saioa, lokalean.

#### Abenduaren 30 ostirala

**19:00etan**, Olerki emanaldia,  
Kultur-Etxean. Ondoren, pin-  
txo-luntxa, lokalean.

#### Abenduaren 31 larunbata

**19:00etan**, Euskal Presoak Etxe-  
ra manifestazioa, Okendotik.

#### Urtarrilaren 2 astelehena

**19:00etan**, Ataramiñe kultur  
elkartea eta argitaletxearen  
aurtengo argitalpenen aur-  
kezpena, lokalean

#### Urtarrilaren 3 asteartea

**19:00etan**, Poesia emanaldia,  
Ramon Agirrekin, besteak  
beste, lokalean.

#### Urtarrilaren 4 asteazkena

**19:00etan**, Torturaren Aurkako  
Taldearen bideoaren aurkez-  
pena, lokalean.

#### Urtarrilaren 5 osteguna

**18:00etan**, presoek eskulan  
erakusketa, lokalean.

#### Urtarrilaren 6 ostirala

**19:30ean**, Joseba Tapiaren kon-  
tzentua, "Eta tira eta tunba",  
Kultur-Etxeko aretoan.



### Brigitarren komentuko jaiotza

Urtero lege, Ama Brigitarren komentuan MISTERIOA jarri  
dute. Egun berezi hauetan egunero ikusgai izango da. Eta  
Errege Magoen desfilean, urtarilaren 5ean, Erregeek ber-  
tan utziko dituzte opariak. Gainera, Udaletxe eta Atsoba-  
karreko zaharren egoitzarekin batera, hau da aurten  
argiztapena izango duen guneetako bat. •

### Aurten ez da Danok Kideko Jaiotza erraldoia izango

DANOK KIDEKO lokalean jarri ohi den JAIOTZA ERRALDOIA  
arazo teknikoengatik ez da aurten ikusgai izango. Jaiot-  
zako arduradunek azaldu digutenez, "martxan jartzeko  
asmoa genuen, baina aurten ezingo da izan". Honetaz  
gain, hurrengo urtean beste kokaleku batean jarri behar-  
ko dutela ere adierazi digute. •



### Oriako Karmengo Amaren kaperako jaiotza

ORIAKO JAIOTZA ikusgai dago igandero 10:30etik  
12:00etara. Bertan ikus daitekeen jaiotzako hainbat iru-  
dik mugimendua dute eta Oriako kaperan beti egon den  
jaiotza da, nahiz eta piezaren bat berria gehitu, funtsean  
betikoa da. •



ETXARRI DIGITAL

DIGITAL

943361484

Nagusia 17 LASARTE-ORIA



ERREBELATU DIGITALEKO MAKINA BERRIA

Gabon zoriontsuak  
opa dizkizuegu,  
lagunarte ederrean!



Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN  
KARRETEEN errebelatua ORDU BETEAN  
EZKONTZETAKO erreportajeak  
ESTUDIOKO erreportajeak  
makina DIGITALAK  
30X90 neurrirainoko ANPLAZIO DIGITALAK  
GEURE MARKOAK JARTZEN DITUGU





## Zorion-agurrak



**Pili**

Zorionak amonaxko!  
Oso ondo pasa. Muxu mila gure partetik



**Ibone**

Zorionak ponpoxa! Zer uste zenuen ahaztuta geundela. Denon partetik, hamaika mila muxu



**Naroa**

Zorionak printzesa!  
Hamar muxu potolo etxekoan partetik.



**Felix eta Alejandro**

Zorionak! Oraindik lan asko egin behar duzue, aurrera segi!



**Arkaitz**

Zorionak! Zure guraso eta osaba Rafaren partetik. Ondo pasa!



**Gorka eta Unai**

Zorionak bikote! Muxu potoloak aitona Alfredo eta amona Pepi-ren partetik.



**Alazne**

Zorionak 2.urtebetzean! Amona, osaba Jesus, Garazi, Judith eta famili osoaren partetik!



**Mikel**

Zorionak zure zazpigarren urtebetetzean familia eta lagunren partetik!!!



**Ariadne**

Zorion eta muxu pila senideen partetik



**Nikola**

Zorionak pottoko! Ondo pasa zure lgo urtebetetzean. Muxu handia familiaren partetik.



**Nerea**

Zorionak! Etxeko pampinak bi urte ditu. Muxuak Eneritz, amatxo eta aitaxoren partetik.



**Oihane**

Zorionak marisorgin! Oso ondo pasa, hamaika muxu gure partetik.



**Karla**

Zorionak zuri... Zorionak beti... Zorionak bitxito zure urtebetetzean guraso eta Arai-ren partetik.



**Endika**

Zorionak! 9 muxu handi familiaren partetik, bereziki aita, ama eta Julenenak.



**Gorka**

Zorionak elemento! Ondo pasa koadrillaren partetik!



**Agus**

Zorionak! Oso ondo pasa koadrillaren partetik!



**Aritz eta Itsaso**

Zorionak bikotexko! Oso oso ondo pasa eta asko disfrutau, aurten txokolatzeko musuak tokatzen dira.



**Ainhoa eta Irati**

Zorionak pitxinas! Gozatu zuen egunen baino ez ahaztu juerga bat geatzeala zuen kontu! Muxu handi bana, Txileraino iritsiko delakoan ere. Zuen koadrila :)



**Judith**

Zorionak Judith eta aitona, familiaren partetik.



**Darío**

Zorionak gure txiki-handiari! Txokomarrubizko musu goxo bat aitatxo eta amatxoren partetik. Oso ondo pasa

## Oharrak

### Odol ateratzek

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzek egingo dituzte Osasun Zentroan abenduaren 26an arratsaldeko 18:30etik 21:00era. Anima zaitzete!

### Erketz-en olentzerori ongi etorria

Herriko inguruko baserrietan barrena kantari atera nahi duenak aurten ere aukera paregabea izango du abenduaren 24ean, Erketz EDT-ren eskutik. Entsegua gaur, abenduaren 23an, 20:00etan Zumaburu eskolan taldeak erabiltzen duen lekuan izango da.

### Multimusikaleko zozketako irabazleak

Multimusikalean egin ziren zozketako zenbaki irabazleak hauek dira: Martin Berasategi jatetxean bi pertsonentzako afaria, 847 zenbakia eta nekazalturismoan asteburu pasa, 735 zenbakia.

### Marrazki eta margo ikastaroa

Lasarte-Oria Bizilagunen elkarteak jakin arazten du, abenduaren 24 eta 31ean ez dela marrazki eta margo klaserik egongo Manuel Lekuona kultur-etxea itxita dago eta.

### Helduentzako igeriketa ikastaroa

Udal Kirol Zerbitzuak urtariraren 9tik otsailaren 22ra, helduentzako hasiera eta erdi mailako igeriketa ikastaroa eskainiko du. Astean hiru saio izango dira (astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan) eta bi ordutegietan: 07:10ean eta 20:30ean.

Izena emateko azken eguna urtariraren 4a da. Ikastaroak 105,70 euro balio ditu eta bazkide direnentzat 58,70 euro. Informazio gehiago eskuratzeko kiroldegiko bulegora hurbildu edo 943 376 182 telefonora deitu.

### Kirol guneen egutegia Eguberrietan

Udal Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, abenduaren 24, 25 eta 31ean eta urtariraren 1 eta 6an Kirol Instalazioak itxita egongo direla. Urtarrilaren 5ean, berriz, 7:00etatik 12:30era egongo da irekia.

### Marrazkiak lehiaketa eta zuzi eramaleak

MEGABA elkarteak antolatutako marrazki lehiaketan parte hartzeko azken eguna da gaur. Lehiaketako gaia Ekialde Urruneko Errege magoak da. Lanak Manuel Lekuona Kultur etxean egongo den postontzian utzi behar dira.

Honetaz gain, Errege Magoen desfilerako zuziak eramateko pertsonak behar dira. MEGABA elkarteak bazkideek Danok Kideko lokalera hurbildu behar dira izena emateko, abenduaren 29an 19:00etatik aurrera eta bazkide ez direnak, berriz, urtariraren 3an Manuel Lekuona kultur-etxean 19:00etan egingo den bileran emango dute izena.

### Maria Auxiliadoraren meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren ohorezko meza ospatuko da gaur, 17:00etan.

### Bazkide kanpaina eta bulegoa

Ostadar Saiarre Kirol taldeak bazkide kanpaina bukatuko du gaur Okendo Plazan, 18:30etatik aurrera. Horretarako klubeko atal guztiek saio bat, entrenamendua, eskainiko dute. Horretaz gain, mendiko bideo emanaldia eskainiko da eta klubeko informazioa banatuko da.

Era berean, taldeak jakin arazten du, bulegoa abenduaren 26tik urtariraren 8ra arte itxita egongo dela.

Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu !

# I. GURRUZOLA

## ARROZTEGIA

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.

Oria etorbidea 4, behea  
(Errekato jatetxearen ondoan)  
Tel.: 943 371200 / 610 413131  
LASARTE-ORIA





# LUIS CAR

## autobusak

EGUBERRI ON!



- Españiako eta nazioarteko garraio-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre plaza 1 Tel./faxa: 943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA



Nagusia 36, behea 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 37 04 46

Nagusia 50, behea  
Lasarte-Oria  
Tel.: 943 36 36 11



Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!



Geltoki Kalea 15 behea  
Lasarte-Oria  
Tel.: 943 376585

HARATEGIA



URDAITEGIA





Aldaz hortz klinikak  
jai zoriontsuak eta  
Urteberri on

*2012*  
opa dizue



RPS124/10

